

TOKIKOM

2017ko apirila | 169. zenbakia

# ai kor!

txorierr... bizkaria

Jokin Serra, suhiltzailea

## Bizkaiko Segurtasunaren aurpegia





# EUSKAL ASTEA<sup>2017</sup>

## Zamudion geurea, euskerea!

### maiatzak 2, martitzena

19:30: XVIII. KANTA IKASTAROA  
ITSASO ARRIETA, Dorretxean

### maiatzak 5, barikua

18:00: PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS,  
"TIPI-TAPA, KORRIKA" Kiroldegian

### maiatzak 6, zapatua

10:00: IBILALDI DIDAKTIKOA UMEENTZAT  
ZAMUDIO ZURE HERRIA EZAGUTU

12:30: PILOTA partiduak ARBOLANTXA

pilota eskolaren eskutik,

19:00: KANTALDIA,

MARIE HIRIGOIEN ETA PANTXIX BIDART, Dorretxean

### maiatzak 7, domeka

9:00: XVII. MENDI IBILALDIA,

BIZKARGIRA, Plazatik hasita

ARROETA mendi taldeagaz batera antolatuta

18:30: ZINEA, IGELAK,

Dorretxean





-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... M<sup>a</sup> Asun García, barra terapeuta
-  **12** Gurean izan da... Juan Ignacio Pérez
-  **14** Txorierritartua... Julio César Torres
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Jokin Sierra, suhiltzailea
-  **22** Korrika 20, Txorierrin
-  **26** Derioko San Isidro jaiak
-  **30** Gym berdea, Larrabetzun
-  **32** Taldeak... Loiu Txoribikers elkarteak
-  **34** Teknologia... CRISPR
-  **35** Aikorrizketa... Diligentziak, trena eta...
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 Korrika 20



26 Derioko San Isidro jaiak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

**aikor!**  
txorierriko aldizkaria

**Argitaratzailea:** TOTOAN,  
Txorierriko Euskara Elkarteen  
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,  
Arrekilili, Tximintx eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.eus

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio buruak:** Itxaso Marina eta Gaizka Eguzkitza

**Erredakzio taldea:** Maite Leckerika, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Itziar Larrazabal, Belen Gana, Xabier Díaz, Gaizka Peñafiel, Itsasne Zubiri, Idoia Andrés, Oihana Astobieta, Itallen bertso eskola, Ana Apika eta Jose Angel Mentxaka

**Zuzentzaileak:** Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota eritxien erantzukizunik.



BELEN GANA

(Txepetxa AEK euskaltegiaren arduraduna)

**2**0. KORRIKA ikaragarria, itzela, mundiala izan da. Inozkorik jendetsuena. Zorionak eta eskerrak emateko ordua da eta egindakoa baloratzeko momentua. Euskarari eta AEKren egoerari bultzada bat emateko, 70eko hamarkada amaieran asmatu zen ekimen zoragarri hau eta gaur ere, oraindik, behar-beharrezkoa dugu.

Alde batetik, dirua biltzeko asmatu zen KORRIKA. Gaur egun ere AEK-k dirua beharrezkoa du; izan ere, Euskal Herri osoko erakunde gara eta lekuan lekuko egoera

## Elkarlanean egin dugu KORRIKA

administratiboen menpe gaude. Ez dezagun ahaztu euskara ez dela ofiziala bere eremu osoan eta ofiziala denetan ere oraindik bide luzea dagoela doakotasuna lortzeko. Bitartean, gure ikasleek diru-laguntza xumeak jasotzen dituzte, sarritan gainontzekoek baino baldintza zorrotzagoak bete behar izaten dituztelarik.

Beste alde batetik, KORRIKA euskararen aldekatutasuna bultzatzeko ere sortu zen. Duda barik, KORRIKA euskararen aldeko ekimen zirrargarria da, positiboa, jendea erakartzen duena, biltzen duena, mugiarazten duena, jendea euskara ikastera eta egitera animatzen duena. Horregatik guztiagatik, Eurne Brouard gure lankideak dioenez, "Korrika egon ez balitz, asmatu egin beharko zen".

Hasiera-hasieratik, jendeak KORRIKA-ren balioa ikusi, ulertu eta babestu egin du. Eskertzekoa da benetan babes hori, eta bereziki herrietako Korrika batzordeek egindako lan eskerga (hainbat batzar egi-

nez, herriko ekimenak prestatu, babestu, ardurak banandu, korrika lagun egin, kilometroen zaintzak egin, ekimenen lanak prestatu eta aurrera atera, propaganda ipini eta kendu...)

Era berean, herrietako hainbat elkarte eta instituzioek ere babestu du 20. KORRIKA. Aurtengo edizioan elkarlana azpimarratu gura izan dugu, eta horren adibide izan da Santiago zubian egindako kilometroak irudikatu zuena.

Gurera ekarrita, elkarlana irudika dezakegu herriko ekimenak finantzatzeko Udalen ekarpenetan, eskolek antolaturiko KORRIKA Txikietan eta Loiuko Udalak egindako ahaleginean, lehen aldiz herriko ikasleak elkartu eta mila ume inguruko KORRIKA Txikia antolatzeko lanak burutu baitzituen.

Txorierrin KORRIKAK lortu du jendearen eta instituzioen babesa, orain eskualdean ikasleen babesa handiagotzeko bideak jorratu beharko ditugu.

**B**iztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2015ean hileko batezbesteko soldata gordina, 12 ordainalditan, 2.250 eurokoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Soldata horiek % 4,8 hazi ziren aurreko urtearekin alderatuta. Epe luzeko joera aztertuz, batezbesteko soldatak % 6,2 hazi dira 2008-2015 epealdian, EAEn. Tarte horretan, KPI metatua % 10 izan da. Azken urteotan aberastasunaren gero eta proportzio txikiagoa bideratzen da lan errentetara. Zehazki, Barne produktu gordinaren (BPG) % 46,7 bideratu zen 2015ean EAEn lan errentetara. 2010ean, ordea, guztiaren % 50,2 bideratu zen.

Horrela, guztira 992,8 milioi euro gutxiago eskuratu dituzte langileek EAEn

## Zer gertatzen ari da gure soldatekin?



ITZIAR LARRAZABAL

(ELAren eskualdeko arduraduna)

azken bost urteotan. Hitzarmen motaren arabera, soldata altuenak enpresako edota lantokiko akordioa dutenek jasotzen dituzte EAEn: 2.751 euro. Eta, gainera, diskriminazio ugari gertatzen dira: emakumeen soldatak gizonenak baino baxuagoak dira, laurdena-herena bitartean; gazteen soldatak 45-55 urteko langileenaren erdia dira; kontratu partziala dutenen soldatak jardunaldi osokoen soldaten herena dira; kontratu tenporala dutenek finkoa dutenen soldataren heren bat gutxiago dute...

Txosten osoa:  
[www.mrafundazioa.eus](http://www.mrafundazioa.eus)

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

**Zamudion**

Elkarte Teknologikoa, 105.  
T 94 431 71 36  
E zam@cianoplan.es

**cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)

# Merkatu ekologikoa egingo da hamabostean behin BANen



Txorierriko lehenengo sektoreari eta ekoizle txikiei bultzada ematea da Baserri Antzokiaren (BAN) helburuetariko bat. Hala, eta apirilaren 20tik hasita, merkatu ekologikoa egingo da hamabostero bertan. Ekoizleek azaldu diguten moduan, egitasmoaren bidez euren produktuak hurbilduko dizkiete txorierritarrei. "Guretzat Txorierri da merkatu naturala eta gure auzokideak guretzat inportanteena dira. Ze, produktu ekologikoak ekoiztu eta bezeroak ahalik eta hurbilen edukitzea sartzen da gure filosofian barruan, ahalik eta ekologikoenak izateko ez bakarrik produkzio mailan, baita horiek merkaturatzeko moduan ere". Azoka BANen ipintzeak aukera

ematen die euren produktuak Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeko langileei ere hurbiltzeko.

Besteak beste ortuariak, arrautzak, pasta, marmeladak, landare aromatikoak eta ogia eramango dituzte merkatura, eta ekoizleek txandaka ipiniko dituzte postuak, euren beharizanen arabera. Amaia Carpio (Lurgane), Angel Gómez (Ekoene) eta Martín Barriuso (Ekoganguren) harpatu ditugu merkatu ekologikoaren lehenengo hitzorduan. Aste Santuko oporrak tartean egon diren arren, pozik azaldu dira egitasmoak eduki duen harrerarekin. Merkatua berriro zabalduko da maiatzaren 4an eta 18an, eta ekainaren 1ean, 15ean eta 29an, 12:30-15:30 bitartean.

a: Josu Andoni Begoña



## Autobus geltokia ipiniko da Iberre bidean, Loiu

Lanak hasi dira dagoeneko eta Udalak 100.000 euro inbertituko ditu bertan. Geltokia Iberre biderako sarreraren eta Larrakoetxe-Derion dauden etxeetarako sarbidearen artean ipiniko da.

Azaldutakoaren arabera, autobus batzuek geldialdia egiten dute inguruan, baina geltokirik ez dagoenez, autobusa errepidean bertan gelditzen da, ondo ikusten ez den gune batean. Gainera, ez dago ez espaloirik, ez zebra-biderik, eta arriskutsua da oinezkoentzat errepidea gurutzatzea. Hori dela eta, bazterbide bat atonduko da, autobusak bertan gelditzeko eta zirkulazioa ez oztopatzeko. Oinezkoentzako bidea ere atonduko da, eta zebra-bidea eta semaforoa ipiniko dira Larrakoetxe-Derioko etxeetarako sarbidera ailegatu baino lehen.

**auzoKide**  
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisoloko 4, beheko B  
48150 SONDIKA **634 410 470**  
auzokidefincas@gmail.com

**Ford Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

**94 453 25 15**  
**94 453 39 31**

**ASESORÍA**  
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1  
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**GALAIISA** *Ezagabeko orduologia*

Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

**IRATXO**  
gozotegia

lanta personalizatua  
trufak  
lelak  
pastelak  
pestatik

Mikel Zurrota, 2 - 3. lantza • Sondika, 48130 • 94 643 89 70



## Iparraldea ekarriko dute Lezamara berriro ere

Iaz Iparralde Eguna ospatu zuten lehenengo aldiz Lezaman. Ekintzak hango kultura eta folklorea herritarrei ezagutaraztea eduki zuen helburu, eta aurten bigarren aldiz antolatu dute maiatzaren 27rako. Egun horretan ekitaldi sorta zabala egongo da 12:00etatik aurrera: Iparraldeko dantzak, musika, bazkaria eta kontzertuak, batzuk aipatzearen. Gainera, aurreko egunean, maiatzaren 26an, Iparraldeko Euskal Elkargoari buruzko hitzaldia eskainiko da, 19:00etan, Kultura Aretoan.

Iparralde Egunaren antolatzaile dira Lezamako Udala, Zorritzetan euskara elkarte, Kurutze dantza taldea, jai batzordea eta Gurasoen elkarte.

a: Lezamako Udala



## Martxa solidarioa egingo da Erandiogoikoan



XII. martxa solidarioa Ortz Erandioko herri kirol taldeak antolatu du eta maiatzaren 7an izango da. Aurreko edizioetan bezala, ibilbide bi egongo dira: ibilbide luzeak 26 kilometro izango ditu; eta laburrak 12 kilometro. Izen-ematea Erandiogoikoko plazan egin behar da maiatzaren 7an egun berean. Ibilbide luzeko martxan parte hartzeko 7:15-7:45 tartean eman behar da izena; eta ibilbide laburreko martxan parte hartzeko, 9:00-09:45 tartean. Ibilbide luzeari 8:00etan emango

diote hasiera; eta laburrari, 10:00etan. Derrigorrezkoa ez bada ere, antolatzaileek eskertuko dute inskripzio moduan kilo bat janari ez galkor ematen bada, kasurako arroza, gailetak eta egoskariak. Batzen dena herriko behartsuen artean banatuko dute. Martxaz gainera, umeentzako puzgarriak egongo dira eta Kick Boxing erakustaldia eskainiko da. Era berean, omenaldia egingo diote herriko pertsonaia esanguratsu bati eta martxaren argazkiak ipiniko dira ikusgai.

**Lzpilen**  
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Ionia - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Tel./faxa: 94 452 06 64  
Torrelarragoti ind. P-7  
48170 Zamudio (BIZKAIA)

**Restaurante**  
JANA - JKTETXA

Eguneko menuak  
Menu bereziak  
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

**yedra floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

**BASALBEITIKO TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina  
Denominazio de Orjigen

Bizkaiko Txakolina

Goitioitza auzoa, 37  
(LEZAMA)  
94 455 61 46

**ZAMUDIO**  
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com

**TXORIERRI**  
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia  
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11  
txori-erri@euskalnet.net

zuzendutik gertu

ABOLKELARITZA - TASAZIOA  
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK  
SALEKONKETAK  
SEGUROS BILBAOHEN AGENTZIA

# Ciriaco gogoan, Larrabetzuko Txakolin Egunean

a: bbkazoka.eus

Larrabetzuko Udalak Txakolin Eguna antolatzen duen 16. aldiz, apirilaren 9an. Aurreko edizioetan lez, erakusleio paregabea izan zen Txorierriko ekoizleentzat, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko zazpi txakolingileren txakolinak dastatzeko aukera egon zelako: Erdikoetxe, Bitxia, Basalbeiti, Izagirre, Garkalde, Magalarte eta Sasine. Bestetik, Udalak ekintza aprobe txatu zuen Ciriaco Dañobeitiari omenaldia egiteko. Ciriaco Larrabetzuko txakolingilerik zaharrena zen eta Sasine txakolina egiten zuen. Aurten hil da. Eguraldi ederra egon zen eta giro polita nagusitu

zen egun osoan. "Azokara aurrekoetan baino jende gutxiago etorri da, behar bada, baina normala da Aste Santuko oporrak hur izan ditugulako, eta eguraldi ona egin duelako. Dena dela, oso pozik gaude, betiko moduan, herrira jende pilo bat hurbildu delako", esan zigun Iñigo Gaztelu herriko alkateak.

Txakolinaz gain, Bizkaiko eta Arabako nekazariak baserriko produktuak eraman zituzten azokara, besteak beste barazkiak, Muxikako gazta, Errigoitiko ardi- eta behi-esnez egindako esnekiak, Bermeoko kontserbak eta Mungian egindako paiteak. Lore lehorrez egindako postalak eta jantziak ere ipini ziren ikusgai eta erosgai.



## Ekitaldiak Larrabetzun, 36ko Gerra gogoan

Laurogei urte bete dira tropa faxistak Larrabetzun sartu zirela eta efemeridearen haririk ekitaldiak antolatu dituzte maiatzerako. Horrela, hilaren 5ean, "Gerra Zibila" gazteei zuzendutako hitzaldia eskainiko da 19:00etan, Hori Bai gaztetxean. Anguleri Kultur Etxean, hiru film emango dira: *Las 13 rosas*, hilaren 11n (hizlaria, Iratxe Fresneda); *La voz dormida*, hilaren 19an (hizlaria, Toti Martínez de Lezea); eta *La mujer del anarquista*, hilaren 25ean (hizlaria, Bego Vicario). Filmak 19:30ean izango dira. Azkenik, maiatzaren 26an musika kontzertua egongo da Andra Mari elizan, 19:30ean, Larrabetzuko Musika Eskolaren eskutik.

Bestalde, Bizkargi Eguna dela-eta, maiatzaren 3an eta 7an ere ekitaldiak egingo dituzte Burdin Hesia edo *Cinturón de Hierro* defendatzen hil ziren gudarien omenez.

**GOI-ALDE**

**Peluceria Estetika**

Servicio de Peluquería y Estética

tlf. **94 455 81 44**

Anguleri 2 bajo Larrabetzu - Bizkaia

**SARRIKOLA OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**aldekone**  
hartz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

**Anuska Prieto Aguilar**  
Odontologoa

–Especialitate guztiak zentro bakar batean  
–Aurrekontua duan

–Especialitateak: umeak

Urte 7, beheak  
48160 DERO (Bizkaia)

**Arantza Amondarain Lasa**  
Ginekologoa

Txanero atxarribidea, 3-4  
413. buldogea  
48160 Dero.

Txaneroa via Ibaia  
94 454 44 98  
a.amondarain@guv.es



## Gazte jaia, Loion maiatzaren 6an,

Gazte jaia bertako Udalak antolatu du bosgarren aldiz, Loiuako Bakarrak eta Danontzat elkarteek laguntzarekin. Egun osoan, gazteek presatutako hainbat ekintza egongo dira. Esaterako, goizeko 11etan gymkana bat egingo da herria ezagutzeko. Ondoren, triki-poteoa, eta gazte bazkaria 15:00etan izango da. Taberna Ibiltaria herriko kaleetatik ibiliko da sei eta erdietatik aurrera, eta kontzertuak 23:00etan hasiko dira. Eszenatokira Ze esatek eta Oxabi taldeak igoko dira. Ekintzak Loiuako gazteentzat ez ezik Txorierriko gainontzeko herrietako gazteentzat ere badira, denei zuzenduta.

## BTT Topaketa, Loion

Topaketa lehenengo aldiz antolatu da Loion, maiatzaren 21erako. Ekintza Bizkaiko Txirrindularitza Federazioaren egutegiaren barruan dago eta horretan txirrindularitza eskola batzuetako umeek hartuko dute parte, 8-14 urtera bitarteko umeak. Txirrindulariak goizeko 11etan elkartuko dira Zabaloetxe etorbidearen ondoan dauden zelaian. Han zirkuitu bi atonduko dira kategorien arabera: 400 metroko zirkuitu txikia, benjamin eta lehenengo urteko kimuentzat; eta kilometro bateko zirkuitu handia, bigarren urteko kimuentzat eta lehenengo eta bigarren urteetako umeentzat.

## Gailur taldearen bazkideei zuzendutako argazki lehiaketa



Lezamako mendi taldeak lehiaketa hori antolatu du bosgarren aldiz. Lehiaketan edozein bazkide hartu ahalko du parte kategorian bitan: paisaiak eta erretratuak, banakakoak zein taldekoak.

Argazkiak aurtengo ekintzetan ateratakoak izango dira eta kategorian, bazkide eta jarduera bakoitzeko argazki bakarra aurkeztu ahalko da. Argazkiak gailurmt@outlook.com helbide elektronikora bidali ahalko dira abenduaren 10era arte, eta zehaztu beharko dira egilearen izena, ekintzaren eguna eta kategorian. Mezua- ren gaian "5. Argazki lehiaketarako" idatzi beharko da.

Argazkiak [www.gailur.org](http://www.gailur.org) webgunean ipiniko dira ikusgai, galeria atalean, eta zenbaki baten bidez identifikatuko dira. Bazkideek 0tik 5era arteko puntuazioa eman ahalko diete argazkiei, eta mezu bat bidali beharko dute elkartearen helbidera horren berri emateko. Bestetik, hiru lagunek osatutako epaimahaiak aukeratu du kategorian bakoitzeko irabazlea. Horretarako, argazkiek lortutako puntuazioa edukiko dute kontuan.

Kategoria bakoitzeko sari bi emango dira: lehenengoa, 45 euroko opari-txartela; eta bigarrena, 30 euroko opari-txartela.

**t i k**  
**t a k**

**EGUNEKO MENUA**  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria **9€**

Bostorrene 5, Behea 48160 DERIO  
**T: 94 454 55 55**

**ARINKA KASTEGIA**  
Goiko kalea, 6 DERIO

LH - DBH - BATX.  
INGELES - MARRAZKETA  
ERROBOTIKA  
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753 695 78 77 74  
[www.arinkakopidenda.com](http://www.arinkakopidenda.com) [arinkaikastegia.blogspot.com](http://arinkaikastegia.blogspot.com)

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**elekma**  
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK  
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK

lehenengo markak • Preziarik onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Tasariari etorbidea, 253 N • 48180 Iruia  
T: 944 339 332  
[www.elekma.es](http://www.elekma.es)

**TURREGOITI JATETXEA**

Lauroeta etorbidea, 27  
48160 Lolu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
[restauranteturregoitik.com](http://restauranteturregoitik.com)

**ELORRIETA INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behe Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**



## Bilborako trena, berriua, berriro martxan

Apirilaren 8an, Bilboko metroko hirugarren linea inauguratu zen, Etxebarri eta Matiko lotzen dituen, eta horrekin batera baita Etxebarritik Lezamara doan trenbidea ere. Zerbitzu berria da, baina betiko geltokietatik ibiliko dena: Kurtze, Zamudio, Lekunbiz, Derio, Elotxelerrri, Larrondo, Sondika, Ola, Matiko, Uribarri, eta Zazpi Kaleak. Gainera, txorieritarrok beste geraleku batzuetara zuzenean joateko aukera izango dugu: Zurbaranbarri, Txurdinaga, Otxarkoaga eta Etxebarri herriko Kukullaga auzoa.

Linea, geltokiak eta trenak berriro dituzte eta, gainera, ordu-tegiak hobeak dira. Izan ere, maiztasuna, puntako orduetan handiagoa izango da, 15 minuturo,

alegia. Haraneko orduetan, berriz, ordu-tegiak betikoak izango dira, 30 minuturo. Azken hilabeteotan lanak egon dira eta horrek eragozpenak ekarri dizkigu txorieritarroi. Ondorioz, Sondikatik Bilbora zuzenean joan beharrean, trenak Lutxanaraino eramaten gintuen eta, handik, metroa hartu behar izaten genuen. Hasiera batean, Euskotrenek Lutxanako trenbidea ixteko asmoa zuen, baina Erandio eta Loiuako Udalek horri eustea eskatu dute, eta momentuz mantenduko dute. Linea horren maiztasuna ordubetekoa da eta bakarrik astelehenetik ostiralera erabili ahal da. Euskotrenek aztertuko du bidaia-rikopurua, eta txikia bada, zerbitzua bertan behera geldituko da.



## Derioko Argazki Rallyak 400 euro banatuko ditu saritan

Derioko Argazki Taldeak eta Derioko Udalak Argazki Rallya antolatuko dute maiatzaren 6rako. Rallyak 13. edizioa beteko du aurtengo eta 400 euro banatuko ditu saritan. Lehenengo saria argazki bildumarik onenarentzat izango da eta irabazleak diploma bat eta 200 euro jasoko ditu saritzat. Bigarren saria argazkirik onenarentzat izango da eta irabazleak diploma bat eta 100 euro jasoko ditu. Eta hirugarren saria Derioko lehen saikatuarentzat izango da. Horri ere diploma bat eta 100 euro emango dizkiote saritzat. Dirua Danerik Paraje elkartearen barruan dauden dendetan gastatu behar du.

Parte-hartzaileak 10:00-10:30ak bitartean irtengo dira Derioko Kultur Birikan, eta han jakinaraziko zaie zeintzuk izango diren Rallyaren gaiak. Era berean, izena ematea egin behar du irteeran eta probaren xehetasunak jasoko dituzte. Nolanahi ere, arauak [www.datfotoderio.com](http://www.datfotoderio.com) webgunean kontsultatu daitezke.

Sariak maiatzaren 27an 12:30ean banatuko dira Kultur Birikan. Ekitaldian lehiaketara aurkezten diren argazki guztiak ipini-ko dira ikusgai eta opariak banatuko dira.

**PATXI**  
KOOP

FRUTUEN KOOPIERATZA ELKARTEA  
Nabarra poligona - Euzkadi 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel. 944 522 587 | info@paxi.koop | www.paxi.koop

**Peñasko**  
arraindegia

Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 0808

**FRUTAK BARAZKIAK**

Produktu ekologikoak  
Hainbat ogi eta pastel mota  
Produktuak zeliakoentzat

Gaztelumendi, 3 - behea  
48195 Larrabetzu  
94 455 89 19

**ANKAPAZU**

**LARRABETZU**  
☎ 94455 81 97  
**LOROÑO BEHEKOA**  
(BIZKAIA)

## Amets tabernak Sondikako I. Pintxo Lehiaketa irabazi du

Udalak *Sondika Pintxotan* lehiaketa antolatu du lehenengo aldiz, herriko ostalaritza bultzatu eta girotzeko. Txapelketan hiru kategoria egon dira: haragizko pintxoak, arrainezko pintxoak eta estilo libreko pintxoak.

Haragizko kategoria Txamo tabernak irabazi zuen; eta arrainezko eta pisu libreko kategoriak, Amets tabernak. Gainera, Amets taberna txapelketaren irabazlea ere izan da. Irabazlea aukeratzeko, kategoria bakoitzean lortutako puntuak zenbatu dira eta puntu gehien lortu duenak txapela eraman du. Bestalde, kategoria bakoitzeko irabazleak garaikur pertsonalizatu bat jaso du saritzat.

Epaimahaia osatu dute, alde batek, gastronomian aditu talde batek; eta bestetik, herritarrek eurek. Adituen erabakia balorazioen % 50 izan da; eta bezeroena, beste % 50a. Euren botoa eman duten herritarren artean 100 euroko txartelak zozketatu dira, ekintzari atxikitako dendetan gastatzeko.

*Sondika Pintxotan* lehiaketak zapore ona utzi die ostalariei, herritarrei zein antolatzaileei. Lehiaketa hiru barikutan egin da aurren, baina datorren urteari begira, hura zapatura eramateko asmoa dute, herriko tabernetan giro handiagoa egon dadin.



## Blanco anaiek ezin izan dute Pandemoniuma bukatu



Manu eta Javi Blanco pilotu loiuztarrek Pandemonium rallya bertan behera utzi behar izan zuten famili arazoengatik. Lehenengo postuan zebiltzan lasterketan, eta hara eramana zuten materialaren erdia banatu zuten Atlaseko herrixka galdu batean. "Lehenengo egunean 250 kilo banatu genituen han. Toki hartan ez zela inor bizi ematen zuen, baina jendea hurbiltzen hasi zen, eta azkenean eramandakoaren erdia utzi genuen bertan", esan du Manuk. "Batez ere umeentzako arropa".

Martxoaren 24an ostiralez abiatu ziren Marokora pilotu biak, eta apirilaren 1ean bueltatzeko asmoa bazuten ere, martxoaren 29an itzuli ziren. "Aitak osasun arazo larriak zituela esateko deitu ziguten, eta pentsatu gabe bertan behera utzi genuen dena, Atlaseko alde hotzean". Halandaze, geratzen zitzaien materiala beste pilotuei eman eta buelta erdia eman behar izan zuten loiuztarrek.

Aitaren osasun arazoena kenduta, Manu poz-pozik dabil Marokon bizi izandako esperientziarekin: "Pena eman zingun lasterketa bertan behera uzteak, bai-

na bizi izandakoa sekulakoa izan da eta autoa pentsatzen genuen baino hobeto ibili da".

### 2.000 km inguru, 24 orduan

Pilotuen aitaren osasun arazoaren berri izan zutenean, anaiak Marrakechetik 150 kilometrorra zeuden, Atlasean. Handik 09:30ean irten ziren. "Aurora igo eta 2.000 km egin genituen segituan, 100 km orduko batuz besteko abiadura", azaldu du Manuk. Hurrengo eguneko 13:00etan heldu ziren Loiura. "Heldu ginenean aita hobetotxoago zegoen osasunez eta sus- to hutsean geratu zen dena, zorionez".

Bizkaitar batzuek duela sei urte sortu- tako rally solidarioa da Pandemoniuma, zeinean auto klasikoek hartzen duten parte. "Batez ere Seat eta Fiat Pandak izaten dira rallyan", adierazi du Manu Blanco. Horiez gain, Citroën AXak, Volkswagen Poloak, Peugeot 205ak, Suzuki Samurairak... denerik ikus daiteke rally horretan. "Baldintza bakarra da autoek gutxienez 25 urte izatea". Aurtengo edizioan Euskal Herria, Madril, Asturias eta Almeriako pilotuak izan dira rallyan.

ERREKA ONDO  
ETXEA

Eguneko menua, astoburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

Carrefour  
express

ORDUTEGIA  
Astelenerdik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

Hortz-klinika  
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Unibe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370





## Mª Asun García Gallo | Barra terapeuta

Duela 17 urte, Sondikako Txamo tabernan hasi zen lanean Mª Asun, gaur egun bikotekidea den Fran Joyera Casado tabernaria barra-lanetan laguntzen. 07:00etan hasten da lanean eta pertsonekin hitz egitea izugarri gustatzen zaio. "Txamo terapia saioa da, eta zerbitzaria jendearen arazoak entzuten dituen psikologoa da", esan du. Hortaz, dibana baino, barraren bestaldean tratatzen ditu bezeroen arazoak.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti  
[www.jongoikouria.com](http://www.jongoikouria.com)

Arazorik badozu  
jo Asunengana,  
taburete bihurtu  
leiteke dibana.  
Sarritan baikorrago  
ikusten da dana  
hartzean kafe gozo  
eta pintxo bana.

*Itallen Bertso Eskola*

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburunbata:  
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea  
Zamudio  
94 4520419

Txirbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**  
CAFE-BAR

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

**enviser**

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneeen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO  
TEL. 94 424 38 34

*t/a: Jon Goikouria Larrabeiti*

# “Gizartea ezin da ulertu zie

JUAN IGNACIO PÉREZ | Zientzia kulturaren katedrako zuzendaria

## Noiz sortu zitzaizun zientziarekiko grina?

Institutuan, batxilergoan nenbilela. Historia eta Zientziaren artean duda-mudatan ibili nintzen, eta azkenean Zientziaren adarra aukeratu nuen. Aurrerago, Fisika edo Biologiaren dilema izan nuen, eta Biologia izan zen nire erabakia. Ezagutza osoa interesgarria iruditzen zait. Dagoeneko, Filosofia Epistemologikoa, Historia eta Etikari buruzko liburuak irakurtzea gustuko dut.

## Zer nolako hitzaldia eskaini duzu Baserri Antzokian?

Gizakiok dugun korrika egiteko ahalmenari buruzkoa. Korrika egitea zertan datzan azaldu dut, bai anatomiko, bai fisiologikoki eta baita nondik datorkigun ahalmen hori, uste baino handiagoa baita.

## Zer nolako garrantzia ematen dio gizarteak hezkuntza eta zientziari gaur egun?

Oso gutxi (barreak). Iritzi ezkorra daukat honen inguruan, baina hau norberaren iritzia da. Duela aste batzuk hezkuntzan egiten diren frogei buruzko jardunaldi batzuetan egon nintzen. Frogak, eta ez probak. Hezkuntzari buruz esaten denaz ditugun frogei buruzkoa izan zen. Hezkuntzari buruz gauza asko esaten dira, baina gehienak funtsik gabekoak. Jardunaldi hauetan Gregorio Luri aditua egon zen, eta bere ustez gizartean kezka handia dago hezkuntzaren esparruan, baina gaur egungo hezkuntza osasuntsu dabilela esaten du. Ziurrenik, bere ikuspegia nirea baino objektiboagoa izango da, urrunetik ikusten duelako egoera. Nik ordea, ez. Hala ere, aitortzen dut nire iritzia inpresio bat baino ez dela.

## Inpresio hau azaltzeko daturik al duzu?

Badakit zein ordura arte geratzen diren haurrak telebista aurrean, eta nire ustez gurasoek ez diete behar bezalako garrantzirik ematen biharamuneko klaseei, esaterako. Hezkuntzaren munduan lan



egiten duten ezagun asko dauzkat eta gurasoen jokabideak kontatzen dizkidan. Sekulakoak batzuk.

## Zein izan daiteke arrazoi nagusia?

Gizartearen akatsik handiena erantzukizun falta da, norberaren erantzukizun falta. Arazoak beste bati leporatzen dizkiogu, norberak aurre egin beharrean, eta orduan errua hitza jokoan sartzen da.

## Orduan?

Errua norena den pentsatu beharrean, zergatik ez dugu erantzukizunean pentsatzen? Errua hitza debekatuta dago etxean. Ez dago errurik, arazoa konpon dezagun!

## Zer nolako eragina dauka zientziak gure eguneroko bizitzan?

Izugarría. Gure gizartea ezin da ulertu zientziarik gabe. Kalkulu diferentzialarik gabe, gaur egungo aurrerapenak ezinezkoak lirateke: ez kotxerik, ez energiari, ez eraikuntzarik... osasunaren alorrean, txertorik edo antibiotikorik gabeko mundua ezin izango litzateke ulertu. Egunero norbait hilko litzateke (edo oso txarto bizi). Ur edangarriaren esparruan ere, zientziaren rola berebizikoa da: hirugarren munduko heriotza kausa ohikoena ur edangarria ez izatearena da, eta zientzia bere horretan dabil.

## Etxean ere mesede egin digu zientziak historian.

Zientziak elektroiak etxekotu ditu. XIX. mendeko Michael Faraday eta James Clerk Maxwell fisikoei esker posible da hau gaur egun. Garai batean, etxeetako leihoak opakuak ziren, eta iluntzean, afaldu, leihoak itxi eta lo egitera zihoan jen-

*“Gizartearen akatsik handiena norberaren erantzukizun falta da”*

*“Zientzia kulturaren eragile nagusia hezkuntza sistema da”*



# ntziarik gabe”

Juan Ignacio Pérez Kultura Zientzia katedrako Zuzendaria Baserri Antzokian izan zen martxoaren 27an *Korrika Egiteko Jaiok* izeneko hitzaldia emateko. Zientzia dibulgatzaileak gizakiok korrika egiteko gaitasun anatomiko eta fisiologikoez aritu zen, eta baita ahalmen honen jatorriaz. Horrez gain, zientzia ezagutzak gure eguneroko bizitzan eta gizartean duen berebiziko garrantziaz mintzatu zitzaigun.

dea. Kandelak asmatu zirenean irakurzale-tasuna jaio zen. Gaur egun, elektrizitate merkea da eta horri esker argia, beroa eta askotariko elektrotresnak dauzkagu. Zer esanik ez telekomunikazioen inguruan.

**Gaur egun, zientziaz hitz egitean, matematika, biologia... bezalako modalitateak datozkigu burura. Gainontzekoak alboratuta daude?**

Zientzia eta ezagutza oro har bereiztekotan, zientzia fidagarria dela esan daiteke: enpirikoa, objektiboa eta metagarria (frogen bitarteko ezagutzak metatzen dira). Gainontzeko ezagutzak balioarriak dira ere, baina artea, literatura... ez dira objektiboak ezta unibertsalak ere. Hala ere, bai zientzia, bai ezagutza, erabilgarriak dira eta ez dut gustuko inolako bereizketarik egitea. Ezagutza guztiak dira balioarriak.

**Zientzia kulturaren katedrako zuzendaria zara. Zein da helburu nagusia?**

Gizartean zientzia kultura sustatu eta gizarteratzea. Zientzia kulturaren eragile nagusia hezkuntza sistema da. Gero eta gauza gehiago dakizkigu, eta uste dugu hau gizarteari transmititzea garrantzitsua dela. Horixe da gure betebeharra.

## Zelakoa da Katedra hau?

Euskeraz eduki gehien produzitzen duen katedra da. Egutero zientzia artikulatu bat argitaratzen dugu, eta hori ez du beste inork egiten. Gainera, euskaraz gain, gaztelaniaz eta ingelesez ere argitaratzen dugu, den-dena argitalpen digitalen bitartez. Hitzaldi zikloak antolatzen ditugu, ekitaldi erraldoiak. Azken bi urteotan unibertsitate aurreko ikasleengan zientziaz jabetzeko, lehiaketan bidez: bideoak, kristalizazio lehiaketak, monologo zientifikoaren lehiaketak...

## Zelakoa da zientzia kulturaren zuzendariaren lana?

Orkestra zuzendari lanak egiten ditut, antolaketa lanak. Horrez gain, 15 egutero artikulatu pare bat idazten ditut ere. Lan honen gauzarik onena ezagutu dudana jende interesgarria da: Coruñan, Santiagon, Salamancan, Cordoban, Murtzian, Madrilen, Iruñean...

## Zer nolako iritzia duzu BAN Zientzia bezalako ekimenei buruz?

Oso gauza polita eta interesgarria dela uste dut. Ekitaldi asko Bilbon egiten dira, eta nire ustez, era honetako ekimenak Bilbotik kanpora eraman beharko lirarteke.

## Zein da zure jarrera internet eta teknologia berrien inguruan?

Ez naiz gailu berrien fanatikoa, ordenagailu eramangarria eta mobilarekin aski daukat. Internet ezinbestez erabili beharreko tresna da, komunikazioen alorrean bereziki. Interneten ez dagoen ezer ez da existitzen, baina tentuz jokatu behar da esparru honetan. Bitartekaritza eraginkorrek desagertu dira eta alde onez gain (edonor da informazioaren jabe), erreztasuna dago gezurrak, mitoak, uste okerrak eta *alternative facts* deritzotenak zabaltea. Garapen honen hasieran egonik, uste oker hauek faltsu gisa sailkatzeko moduren bat topatu beharko genuke, Wikipediak *Daily Mailekin* egin duen bezalaxe: dagoeneko, plataformak ez ditu komunikabidearen estekak onartzen. Konfidantza zirkuituak sortu behar ditugu, iritzia-aren alorrean edozerk balio daitekelako, baina errealitateaz ari garenean, ez.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI  
ALBATRIANITZA  
Nerea Pedrosa Gely, 517  
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

ASADOR  
ARAMENDI



EZKONTZAK  
BATAIOAK  
BANKETEK  
JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119  
Tifnoa.: 94 452 11 58  
ZAMUDIO

MARMOLGINTZA  
GOYO  
SURALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK



Ugaldeguren 1 ind. 18-8 nabea  
48160 Derio, Bizkaia  
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



KAFETEGIA  
IAZI  
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO  
Tel.: 944 54 29 56

# Bizitza burruka-arteeri lotuta

a: Jon Goikouria Larrabeiti eta Junior

Julio César Torresi *Junior* esaten deusie senideek eta lagunek. 1980. urtean jaio zan Guayaquilen, Ekuadorren, eta 15 urte zituala baeban garriko baltza karatean. Baita hainbat txapelketa irabazita be nazino mailan eta kluban artean. Karatean 11 urtegaz hasi zan. Futboleant eta beisboleant be ibili zan arren, burruka-arteeri buru-belarri ekitea erabagi eban. "Etorkizunari begira, nire helburu izan dira beti".

Argentinan legez, Ekuadorren "corralito" bat egon zan, eta herria eta herritarrek finantza-krisialdi larri baten murgildu ziran. *Junior*rek izeko bat eukan Bilbon eta bertara abiau zan amagaz, eta anai-arrebakaz. Hori orain dala 20 urte izan zan, eta *Junior*rek 17 urte zituan garai hant. Zamudiora orain dala zortzi urte ezkondu zan.

Batez be ostalaritzan egin dau lan, eta aireportuan be ibili da. Krisialdiak eta pa-

JULIO CÉSAR TORRES *JUNIOR* | Ekuadorreko zamudioztarra

Mutiltxo bihurria eta "neurrigabea" zala aitortu deusku *Junior*rek, eta horregaitik aitak burruka-arteak ikastera bialdu ebala. Erabagi egokia, izan be burruka-arteek aiurria "biguntzen" lagundu deusielako. Are gehiago, bizitza-modu bat da berarentzat.

perik ez eukiteak bizimodua handik eta hemendik ateratera eroan dabe, eta 15 urteko etenaldi baten ostean, burruka-arteetan ipini dau barriri artea. "Etenaldi luzea izan da, baina ondo ikasten dana ez da inoz ahazten". Halan, orain dala bost urtetik hona jo eta su dabil burruka-arteeri lotuta dagozan hainbat diziplinetan, esate baterako apkidoan, kick boxingean eta yongmudoan. "Yongmudo-a taekwondoa, judoa eta apkidoa buztartzen dituan diziplina da. Besteak beste Korea, Indonesia eta Pakistaneko militarrek erabilten dabe, defentsa pertsonal moduan.

2016. urtean munduko txapelketea egin zan Hego Korean eta brontzezko domina lortu neban bertan. Baziran urteak burrukan ibiltan ez nintzala, eta pozik urten nintzan. Aurten, bigarrena lotu naz Espainiako txapelketan". Azaldu deuskun moduan, yongmudo diziplinan danak balio dau, hala nola ostikadak, eta besoak be apurtu lekiezan giltzak. Eta txapelketetan, militarrek eta merzenarioak izan daitezke parte-hartzaileen artean. "Eskarmentu handiko personak" dira, *Junior*ren esanetan, baina aitatu deusku, batzuen ustez, kirol honek euki leiken zuhurkeriatik haratago begiratu behar dala. "Helburua arerioa menderatzea da, ez hari jipoi ederra emotea; edo alderantziz".

*Youngmudo diziplinaren Espainiako txapeldunordea da, eta munduko hirugarrena*

*"Burruka-arteek diziplina irakasten deusue, hezierea, integrazinoa, begirunea..."*



## Zazpi orduko saioak

Burruka-arteent mundura bertan topau dituan Ekuadorreko lagunent eskutik bueltau da. Gaur egun, garriko baltza eta lehenengo dana daukaz karatean eta kick boxingean; eta garriko marroia, judoan,

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku



Zainduz Bonak  
Logopedia  
Podología  
Kiroprasajia

clínica dental  
**ZAINDUZ**  
hertz clínica

Txoneri etorbidea, 9 - Lonja | Antzaga eraikina | 48180 DERIO  
94 454 01 01 | 667 79 54 45  
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com



HAUR-MODA  
**TXIMELETA**

Gernikako Arbola, 8 DERIO  
94 454 14 35





taekwondoan, apkidoan eta yongmu-  
doan. Era berean, kick boxingeko Ekua-  
dorreko ordezkaria da European, eta ikas-  
leak diziplina horretan trebatzeko ardu-  
rea dauka. Eta Ekuador ordezkatzan dau  
txapelketetan.

Juniorrek ezin dau aukeratu burruka-  
artean; guztiak gustetan jakoz eta  
guztiak beteten deusie. "Kirol arloko  
ekarpenetik aparte, diziplina irakasten  
dozu, hezierea, integrazioa, begiru-  
nea... Gainera, badago oso interesgarria  
dan kung fu diziplinaren modalitate  
barri bat, chi kung-a. Gorputzeko atalak  
osatzeko be baliagarria da, zelan elikatu

jakiteko, zeure burua ezagutzeko...". Di-  
ziplina horreetan guztietan trebatzeko,  
Juniorrek entrenamendu gogorra egiten  
dau egun guztietan. "Egunero sei edo  
zazpi orduko saioak egiten dodaz. Saio  
bakotxean zenbait diziplinatan ibiltan  
naz. Karate, kick boxing eta full contact-i  
jagokonez, nik neuk trebatzen dot neure  
burua ikasitakoa gogoratuz; eta apkidoa-  
ren kasuan, esate baterako, Bilboko gim-  
nasio batera joaten naz astean hirutan".  
Bete-beteko dedikazio horretan etxeko-  
en babesu dau eta alabak be adierazo  
deutso bere urratsei jarraitu gura deutse-  
la.

## Topera

Martxoaren 8aren haritik, Ju-  
niorrek emakumezkoei zuzendutako  
defentsa pertsonaleko ikastaroa  
emon dau Zamudion. "Hamar urtetik  
66 urtera bitarteko 18 emakumezko  
etorri dira ikastarora eta esan behar  
dot oso pozik nagoala irakasle lan  
horregaz. Ea ikastaro gehiago egiten  
diran!".

Etorkizunari begira, argi dauka  
zeintzuk diran bere erronkak. "Asmoa  
daukat datorren urtean barriro Hego  
Koreara, Yongmudo Munduko Txa-  
pelketara, joateko. Baina oraingo ho-  
netan, irabaztera joango naz. Era be-  
rean, hainbat diziplina irakasteko  
klub bat zabaltzea gustauko litxakit.  
Burruka-arteeek onura asko dakarrez-  
la uste dot, eta erabat mesedegarriak  
dirala portaera arazoak daukiezan  
umeentzat eta lagunentzat, oro har.  
Izan be barrena nasaitzeko baliaga-  
rriak izateaz gainera, erreminta peda-  
gogiko handia dira".



Jatetxea **SAN ISIDRO**  
EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GOZOGINTZA APARTA  
**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**  
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala  
Telefonoa 94 454 07 98 Mungialde etorbidea, 25  
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

**HARAGITEGIA**  
**URDAITEGIA**  
**IMAZ**  
MUNGIALDE ETORBIDEA,2  
TELFOA: 94 454 10 75  
DERIO  
Eskerrik asko  
etortzeagaitik

**OSTEOPATIA-ZENTROA**  
**ORDEZKO TERAPIAK**  
*lasai*  
**Luis M<sup>o</sup> Asensio**  
Terapeuta naturopata  
Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO  
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69  
osteopatiasalai@gmail.com

**sarraila-denda**  
**Txorierri**  
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN  
946 038 663  
625 100 800  
info@cerrajeriatxorierri.com  
www.cerrajeriatxorierri.com  
Alain Pomposo Zarate  
Urkiola, 4  
48160 Derio

**LOREGARBI** **GARBIKETA ZERBITZUAK**  
Garbi-ikuziak, osorrotan  
Auzokoen komunitateak  
Mantentzeko garbi-ikuziak  
Bulegoak eta lokaleak  
Ostia emateko garbiketa  
Basturak  
Zabor bilaka  
Besaide Plaza, 1 - B<sup>o</sup> Aldekoa - Tel: 94 406 49 92  
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443  
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

# Mendekotasuna prebenitu eta zaintzan lagundu

Euskadiko bizi-itxaropena asko igon da azken hamarkadetan. Estadistiken arabera, 2029rako 80 urteko eta hortik gorako 200.000 pertsona baino gehiago egongo dira autonomia-erkidegoan (biztanle guztien % 9,9), eta 55 urteko edo hortik gorako milioi bat pertsona inguru (biztanle guztien % 50). Zenbateko horreek euskal gizartearen arrakasta erakusten dabe, argi eta garbi. Izan be, Euskadiren oinarrietako bat gizarte-babeserako dauan sistema sendoa da, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetarako sarbide unibersala dauana. Horrezaz gain, eza-gutza barritzearen eta sortzearen alde egiten dau apustu, zahartze onaren kakoak zeintzuk diran identifikatzeko. Bizi-itxaropena luzatzeak, ostera, mendekotasun-egoerak areagotzea dakar. Egoera horretan dagoz gaur egun Euskadin 80 urtetik gorako pertsonen % 37,3 (50 eta 65 urte bitarteko adin-tartean, barriz, % 2,6).

Errealitate horri erantzuteko, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak jarduke-

**Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak hainbat berbal-di eta tailer emongo dauz Aldundiaren Zainduz programaren barruan, mendekotasun-egoerak prebenitzeko eta mendekotasun-egoeran dagozan adinekoen zaintzaileei informazioa emoteko eta laguntzeko.**

ta batzuk martxan jarriko dauz datozen hilabeteotan Bizkaiko Foru Aldundiko Zainduz programaren barruan. Jarduketa horreen bidez, honako honeek jorratuko dabez udalerrietan: mendekotasun-egoeren prebentzioa, zaintzari buruzko informazioa, eta mendekotasun-egoeran dagozan adinekoen zaintzaileentzako talde-laguntza psikologikoa.

Lau azpiprogramaren bitartez, memoria, estimulazio kognitiboa eta autonomia pertsonala landuko dira, besteak beste. Horrezaz gain, nork bere burua zaintzeko gaitasuna bereganatzeak dauan garrantzia azpimarratuko da, eta bai mendeko-

tasun-egoeran dagozan pertsonentzat bai zaintzaileentzat dagozan gizarte- eta komunitate-baliabideen barri emongo da.

Azpiprogrametako batek mendekotasun-egoerak prebenitzean jarriko dau arreta. Hirurogei urtetik gorako pertsonak ikasi ahal izango dabe memoria-arazoak zelan landu, eta estimulazio kognitiboaren bitartez zelan prebenitu horrelango egoerek okerrera egitea. Beste tailer baten, eguneroko oinarritzko jarduera instrumentaletarako autonomia pertsonala landu ahal izango da. Eta alderdi osteomuskularrari jagokonez, hainbat jardueraren bitartez bizkarreko arazoak hobetzeko







*Besteak beste, memoria,  
estimulazio kognitiboa  
eta autonomia  
pertsonala lantzeko  
aukera egongo da*

hezuntza eta entrenamendua sustatuko dira.

Informazioa eta sentsibilizazioa izango dira jarduketan beste oinarri bat, eta informazio-berbaldiz osatutako azpiprograma baten bidez landuko da hori. Berbaldi horretan, mendekotasun-egoerak prebenitzeko aukerak ezagutzarazoko dira banakako jarduketan bitartez, herritarrak etxeko adineko baten mendekotasun eta zaintzaren errealitate-ra hurbilduko dira, nor bere burua zaintzeko gaitasunak lortzeko dauan garrantzia azpimarratuko da eta alde batera itxiko da edozeinek zaintzen dakielako ideia.

Zaintzaileentzako prestakuntza eta informazioa izango da beste azpiprograma baten ardatza. Azpiprograma horretan, prestakuntza eta informazioa emongo jake mendekotasun-egoeran dagozan pertsonen zaintzaz arduratzen diran senideei, eta mendekotasunaren eta zaintzaren alderdi nagusiak landuko dira. Horretarako, hainbat berbaldi emongo dira honako honeen gainean: laguntza teknikoak eta etxeko egokitza-pen errazak, arriskuen prebentzioa etxean, jarreraren higieena, adinekoen loaren nahasmendua, zahartze aktiboaren abantailak eta zaintzaile izatearen onorioak.

Alde horretatik, zaintzari aurre egiteko laguntza emozionala be emongo da, eta laguntza psikologikoko taldeak eta autolaguntza-taldeak osatuko dira mendeko pertsonen zaintzaz arduratzen diran senideen artean. Talde horretan, zaintzaileak egoera estresagarriak kudeatzen trebatuko ahal izango dira berezko baliabideen bitartez, baita beren ongizate fisiko, psikiko eta emozionala hobetzen be.

Ekintza horreek guztiak apurka-apurka eta eskaeraren arabera egingo dira Txorierriko Mankomunitateko sei udalerrietan, eta dan-danak langile kualifikatuen eskutik.



## Osasuna eta elkartasuna, bat eginda

**Apirilaren 2an, 700 pertsona inguruk hartu zuten parte osasunaren aldeko martxan. Parte-hartzaileek Zamudio eta Derio arteko ibilbidea egin zuten**

Martxaren helburu nagusia ohitura osasungarriak transmititzea zen, baina alderdi solidarioa ere izan zuen, eta tokiko boluntario-elkartekin egin zen lankidetzan. Aurten, Mankomunitateko Esku Hartze Komunitarioko Zerbitzuak antolatutako Txorierriko Osasunaren Aldeko martxak Zamudio eta Derio lotu zituen; apirilaren 2an egin zen, eta adin guztietako 700 pertsona bildu zituen. Parte-hartzaile guztiek giro onaz gozatzeko aukera izan zuten, baita Derioko Gure Señeak elkarteari eta Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkarteari (GBGE) elkartasuna adierazteko aukera ere. Bi elkarte horiek ahalegin handia egin zuten ibilbidean dena behar bezala irteko, eta haiek jaso zuten ekitaldi horren bitartez bildutako dirua.

Lasterketa-martxa 10:00etan hasi zen, eta bi formatu izan zituen. Bi ibilbide egon ziren: bat, laburra, familientzat eta erritmo lasaiagoa nahiago zuten kirolarientzat (6 kilometro); eta bestea, 9 kilometrokoa. Ibilbide luzeak tokiko futbol zelaia

eta Teknologia Parkea lotu zituen, eta Baserri Antzokiaren parean, Deriorako bidea hartu zuen, Rekalde auzoa zeharkatuta. Ibilbidea Derioko kiroldegia-aren parean bukatu zen.

Eguraldiari eta hodeiei esker, egunaz gozatzeko giro bikaina izan zen; bertan, Txorierriko herritarren artean ohitura osasungarriak sustatzeaz gain, 3.000 euro bildu ziren Gure Señeak elkartearentzat (gaitasun arraroak eta desgaitasun bereziak dituzten Derioko haurren alde lan egiten dute) eta GBGE elkartearentzat (errefuxiatuei laguntzen diete eta Hozkailu Solidarioa bezalako proiektuak gauzatzen dituzte, elikagaiak banatzeko).

Azpimarratu beharra dago aurten ere Azeri Natura Guztiontzat kooperatibak hartu zuela parte ekintzan. Edizio honetan, Joseba lagundu zuten, mugitzeko arazoak dituen Galdakaoko gazte bat, ibilbidea egiteko eta egunaz gozatzeko aukera emanez.

Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie Gorabide elkarteari, Derioko Untxa eta Leioako Tartanga eskolako Altxerri mendi-taldee- eta jardunaldi solidario honetan parte hartu zuten pertsona eta elkarte guztiei.

# Sorpsez beteriko bizitza

JOKIN SIERRA | suhiltzailea

Argazkiko gizona Jokin Serra da, suhiltzailea. Berrogeita hemeretzi urte ditu, Larrabetzun bizi da eta Bizkaia osoko segurtasunaren arduraduna da, guardia egunetan. Leioako Artatzako suhiltzaileen Parkean egiten du lan. Suhiltzaile eta kabo bezala hamaika gertakaritan izan ostean, gaur egun bertako inspektoreordea da. Bere betebeharra Bizkaia osoko suhiltzaileak antolatu eta Bizkaia su-garretatik urrun mantentzea da.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Bulegoko uniformeaz jantzita, Artatza parkeko ateara ireki dizkigu Jokinek. Hogeita hamairu urte eman ditu suak amaitzen eta arazoak ebazten. Gezurra badirudi ere, hasiera batean elektrikari-laguntzailea izan zen, alarmak ezartzen zituen enpresa batean, eta bizitzak 180 graduko itzulia eman zion egun batetik bestera. Argiketari lanak egin baino lehen, ume txikia izanik, suarekin lehen kontaktua izan zuen, bere etxean sute bat eginez. "Amen batean suhiltzaileak etorri ziren. Ikaragarria izan zen. Mundu hark aho bete hortz utzi ninduen. Heroiak ziren", azaldu du Leioako bulegoan. Momentu hartan etxe-ko mehatxuak labur geratu zitzaizkio eta Bizkaia zaintzeari eskaini dio bizitza.

Elektrikari lanetan egonda, langabezian geratu zen, eta lagun batek suhiltzaile izateko oposaketak egitera animatu zuen. "1982an Bilboko eta Foru Aldundiko oposaketak egin eta biak gainditu nituen. Diputazioko plaza aukeratu nuen". Horrela, 1983ko azaroan Galdakaon hasi zen lanean (gaur egun Basaurin dago basea). Hemeretzi urte eman zituen lanean, eta

kabo postura aurkeztu zuen bere burua. Hamar urte eman zituen kabo bezala Derioko suhiltzaileen parkean. Azkenean, Hirugarren Zonaldeko postua eskuratu zuen Leioan, inspektoreorde bezala.

Bizkaian 400 suhiltzaile inguru daude, eta parke handiak Urioste, Artatza, Basauri eta Lurretakoak dira. Artatzen 60 pertsonak egiten dute lan (58 gizonezko eta emakume bi), eta suhiltzaileen lantaldea bederatzi pertsonak osatzen dute: Kabo batek eta zortzi suhiltzailek. Inspektoreorde eta suhiltzaileen arteko harremana lan harremana baino askoz gehiago da: "Zorte izugarria izan dut bizitza osoan: Derioko parkeko lankideekin harreman oso ona neukan, eta Leioakoekin gauza bera esan dezaket", adierazi du larrabetzuarrak.

Artatzako zonaldeak *Fenix 3* izena dauka irrati jargoian: "Fenixa errautsetatik irteten den hegaztia da, beti bizirik", azaldu du inspektoreordeak. Lanbide honetan denetarik ikusi dute suhiltzaileek: istripuak, animalien erreskateak, uholdeak... Elkarrizketaren momentuan isiltasuna nagusi da bulegoan. Ordenagailuko bentiladorearen zarata baino ez da en-

*"Artatzen 60 pertsonak egiten dute lan, eta suhiltzaileen lantaldea bederatzi lagunek osatzen dute"*

*"Lanbide honetan edozer gauza gertatu daiteke edozein momentutan"*



tzuten. "Edozer gauza gertatu daiteke edozein momentutan". Hala, da, sirena zarataka hasten bada, bertan behera utzi beharko genuke dena. Erne ibili behar dira suhiltzaileak eguneko 24 orduetan, sorpresen zain.

## Iraganeko mamuak

Suhiltzaile lanpostuaren alde guztiak ezagutu ditu Jokinek. Mailarik baxuena suhiltzailea izatean datza, eta hurrengoak kabo, sargentoa, inspektoreordea eta ofizialak dira. Jokin gertakarietan eta bulegoko lanetan izan da, suak itzaltzen eta suhiltzaileen lanak antolatzen. "Zenbat eta ardura gehiago, orduan eta hobeto ikusten dira gauzak kanpotik", adierazi du. Esperientzia gutxi zueneko garaiek oroitzapen politak eta nostalgia dakar-





## Konekta zaitez gurekin!

**aikor**  
tasierriko aldizkaria

 **Facebook:**  
aikoraldizkaria

 **Twitter:**  
@Aikortxorierrri

 **Instagram:**  
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**  
www.aikor.eus





kio. "Behin baino gehiagotan bizitza arriskuan jarri dut, eta sekulakoetan izan naiz, suteen bihotzean".

Denboran atzera eginez, sekula ahaztuko ez dituen gertaerak burura datozkio Jokini: "Galdakaon nengoela, istripu batean zauritu bat atera izan nuen ibilgailutik, eta anbulantziarako bidean eskuartean hil egin zitzaidan". Era horietako irudiek gogor astintzen dute suhiltzailearen memoria. "Kontzentrazioa gakoa da gure lanbidean, eta nahiz eta egoera desatseginak izan, aurrera egiteko prestatzen gaituzte, lana ahalik eta era egokienean egiten. Elkar babesten dugu".

Guardia eta bitartekaritza egunak dauzka Jokinek. Guardia egunak 24 ordukoak dira, eta basean bizi behar da, zentzu literalean. Horretarako daude guardia buruak. "Diputazioko langileen ordu kopuru berbera daukagu eta gardien araberaren egun batzuk dagozkigu. Hala ere, pribilegio askori uko egin behar diegu: Igandeak, Aste Santua, jaiegunak...". Exigentzia eta antolaketa handia eskatzen duen erantzukizun handiko lana da. Horrela, guardia egun arruntetan errutinak daukate: materialen prestaketa eta errebisioak egiten dira lehen orduetan. On-

*"Zenbat eta ardura gehiago, orduan eta hobeto ikusten dira gauzak kanpotik"*

*"Udazkena garairik txarrena da: lurra siku dago eta hego-haizea nagusi da: suterako osagarri funtzeskoenak"*

*"Gaur lehen baino zailagoa da: sasoian egoteaz gain, guztiz prestatuta egon behar da psikologikoki"*

doren ibilgailuekin maniobrak egiten dituzte: gaurko kasuan, eskala kamioia atera eta teiltuko sute-simulazioa egin dute. Arratsaldeetan prebentzio eta mantentze-lanak egiten dituzte.

Horrez gain, gimnasioa eta pilotalekua dago Leioako parkean: "Sasoian egoten saiatzen gara, azken batean lanak horrela eskatzen duelako. Horretarako monitore batzuk dauzkagu". Gainera, zerbitzuak azterketa fisikoak egiten ditu, bi urtetik behin 50 urte arte, eta urtean behin 50 urte gorakoentzat.

Bitartekaritza lanen egunetan logistika-lanak egin ohi dira: materialak lortzea, koordinazioa bestelako parkeekin, istripuetako autoak simulatzen dituzten ibilgailuen eskaerak (autoak desegiten dituzten tokira deituz eta bitartekaritzaz arduratuz), gardien antolaketa...

#### **Etsai nagusiak**

Suteak dira suhiltzaileen erronkarik nagusienak, mendi-suak bereziki. "Sopelakoa izugarria izan zen. Guardia osagarriak eduki genituen eta errekararako suhiltzaileak erabili behar izan genituen % 100 ematearren", gogoratu du Serrak. Esaten da uda dela urtarorik gogorrena,





baina usteak erdi ustel, udazkena baita: "Lurra siku dago garai horretan, eta hego-haizea nagusi da: suterako osagarri funtzeskoenak". Azkena Sestaon izan zen duela hilabete bat. "Parke guztia bertan izan zen jo eta su lehen ilaran, neu barne, sua itzaltzeaz gain ebakuazio ugari egin behar izan zirelako".

Suteez gain ziklogenesiak, haizeteak eta alarma larriak bezalako gertaerak daude. Egun horietan telefonoa sutan dago (zentzu metaforikoan), ezbehar ugari sortzen direlako. "Askotan, suhiltzaile kopurua baino ezbehar gehiago gertatzen dira, eta gainontzeko parkeekin elkarlanean aritzen gara, ezbeharrak larritasun mailaren arabera sailkatuz".

Momentu honetan Asiako liztorren garaia da. Joan den urteko sasoiatsaile-

ra artekoa izan zen eta aurtengoa martxoan hasi zen. "Lehen urteetako udak oso gogorak izan ziren, arazoari irtenbidea emateko eragozpen asko zegoelako", azaldu du Jokinek. Hori dela eta, Udalak formatzen hasi ziren suhiltzaileek Foru Aldundiko Basalan enpresaren bitartez, eta harrez geroztik suhiltzaileen lana eskola, nagusien egoitzetan edota argindar dorreen inguruetakotako habiak kentzeaz arduratzen dira. "Bat zutan kiskaltzen edo pozoitzen ditugu. Beste batzuetan, ordea, unibertsitateko ikerketak egiteko batzen ditugu, behar bezalako teknikak erabiliz".

Suhiltzaile izateko gogoia duen edonor balio duen galdetzen zaionean, Jokinek zalantzak dauzka. "Gaur lehen baino zailagoa da: sasoiatsaile egoteaz gain, guztiz prestatuta egon behar da psikologiko-

ki. Asko ikasi behar da", aitortu du. "Barritik ikusita, zerbitzuak inizatiba eta ikasteko gogoia eta elkarlanean aritzeko kapazitatea bilatzen du, eta behin oposaketak gaudituta, hiru hilabeteko formazioa egin behar da, lanbide honetan etengabe ikasten baita".

Umezaroko lehen sutetik gaur egun arte ezbehar asko ikusi ditu Jokinek kasuaren bestaldetik. "Hala ere, lan polita bezain aberasgarria da, lanbidea baino, gustura egiten dudana zerbait, eta hori parkea bisitatzen duten eskoletako umen irribarreetan ikusten da". Egunero erronkei aurre egin behar diete, eta horren truke gizartearen esker ona eta mi-respensa jasotzen dute suhiltzaileek, haiek baitira suari gure orde aurre egiten dietenak.

astikenemotor  
www.ASTIKENEMOTOR.com  
DERIO - 946 451 781

LEIRE BEGOÑA  
ULE-APAINDEGIA  
Mungialde etorbidea, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32  
Jarrai iezaguzu f







# Batzuk ez, guztiak

*Bat-zuk* izan da aurtengo Korrikaren leloa. Txorierrin, batzuek ez, ia guztiek ekin zioten korrika egiteari. Betiko moduan, txorierritarrok atxikimendu itzela adierazi genion Korrikari, nahiz eta euskararen aldeko lasterketa erraldoiaren 20. edizioa gauzez etorri gurera. "Jende pilo batek hartu du parte aurten, herri guztietan. Batzuek Erandiogoikoan hasi eta Larrabetzuraino egin zuten korrika. Eta aipatzekoa da gazte asko aritu dela, batez ere korrika egiten. Herriko batzordeek egindako lana eskertzeko eta txalotzeko modukoa izan da. Hainbat ekitaldi antolatu dira eta herri guztietako Udalek ere babesa eskaini dute. Aurten berriro ikusi dugu lekukoak magia duela eta hainbat lagun erakartzen duela", dio Belen Gana Txepetxa AEK Derioko euskaltegiko arduradunak.

Belen antolatzaileetako bat izateaz gain, aurten protagonista ere izan da. Izan ere, Larrabetzun omenaldia egin zioten. "Ez dago barbarik, eskerrak emateko.

Omenaldiak ezustean harrapatu ninduen eta sentimenduen nahaste-borrastea eragin zidan: zirrara, harridura, ilusia... Benetan hunkigarria izan zen, eta oso polita ere bai, norberaren lagunek hainbat urtean egindako lana eskertzen dizutelako". Belenek Txorierrin ez ezik Iruñeko helmugan ere jaso zuen esker ona, azken kilometroa korrika egiteko aukera eman ziotelako. "Azken kilometroa AEK-ko lagunok egiten dugu eta herrialde bakoitzak ordezkaria aukeratzen du. Aurten, laster erretiroa hartuko dudanez, ni aukeratu naute eta poz-pez egin ditut Korrikaren 20. edizioaren azken metroak".

Dena dela, Belenen ustez, omenaldiek ez dute garrantzirik; euskararen alde lanean jarraitzeak, bai, ordea. "Ea Korrikak balio duen euskararen aldeko elkarlana sustatzeko eta diru-laguntzak hobetzeko".

Argazkiak: Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Gaizka Peñafiel eta Aner Mentxaka. Argazki gehiago [www.aikor.eu](http://www.aikor.eu) webgunean.



**Arteaga** BIZIGUNEA

**ZAMUDIO**

**LASTER ERAIKIKO DIRA**

**18**

**etxebizitza kooperatiban kostu-prezioan**  
2, 3 eta 4 logelakoak, garajea, trastelekua eta hornitutako sukaldeak barne.

Duplexak eta atikoak terraza zabalekin.

**184.500 €-tik hasita**

**26**

**udal etxebizitza tasatuak kooperatiban kostu-prezioan**  
2 eta 3 logelakoak, garajea eta trastelekua barne.

Atikoak terraza zabalekin.

**152.500 €-tik hasita**


GESTIOA: **ekogi** **ARRASATE**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA: **iturburu**

FINANTZADAZIOA: **k** kutxabank

**656 78 12 41**  
[arteagabizigunea.com](http://arteagabizigunea.com)





**Aresti**  
Harategia  
Urdaitegia

Hestebeteak  
Haragi bikaina

Oiz. I  
Zamudio  
94 452 00 06





# MINTZA EGUNA

2017ko ekainaren 3an,  
DERION

**11:00** Ongi etorria eta hamaiketakoa.

**12:00** Bi proposamen, aukeran:

- "XX.mendeko historia Bilboko hilerria ezagutuz" bisita gidatua, Jose Angel Mentxakarekin.
- Bertso triki- dantza poteoa Arkaitz Estiballes eta Ibon Ajuria bertsolariekin eta "Bertoko" taldeko trikitilariekin.

**13:30** Kalejira animatua. Bertsoak, trikitixa eta dantzak.

**15:00** Bazkaria Baserri Antzokian.

**16:30** Esker emate ekitaldia.

**17:00** Taberna Ibiltaria eta umeentzako puzgarriak. Aukeratu kantu bat eta animatu bazkalostean taldean kantatzera! Zerrenda [www.mintzalaguna.eus](http://www.mintzalaguna.eus) atarian.

**BAZKARIA ETA HAMAIKETAKOA: 17€**

**BAZKARIA, HAMAIKETAKOA ETA AUTOBUSA: 24€**

**EMAN IZENA** maiatzaren 29a baino lehen!

[www.mintzalaguna.eus](http://www.mintzalaguna.eus)

**635.75.35.95**



Antolatzaileak

Babesleak

Laguntzaileak





# Derioztarren topagune ohia

Maiatzaren 12an hasiko dira Derioko jaiak eta aurtentzen Nahaste-Borraste taldeak eskainiko du pregoia. Elkarte horrek herriko gazteen aisialdia antolatu zuen 1980tik 2000ra bitartean. Ziur asko, derioztar gehienek gogoan izango dituzte taldearekin batera egindako jokoak eta udalekuak, eta noski, bertan jasotako gizarte-balioak ere bai. Derioztarren topagunea izan zen.

## NAHASTE-BORRASTE ELKARTEA



t: Gaizka Eguzkitza / a: Jon Goikouria Larrabeiti

“Nahaste-Borraste taldeak aztarna utzi zigun: umeak eta monitorea herritar solidarioago eta arduratsuago egin ginen eta inplikazio handiago adierazi genuen herrian gertatzen zenarekin”. Horrela laburbildu digu Natalia Villaresek Nahaste-Borraste taldeak izan zuen garrantzia. Nataliaren alboan Rafa Mendia dugu, taldeko sortzaileetako bat. “Taldea 1980an sortu genuen eskolan. Hazia harizko txontxongiloak egiten zituzten eskolako neska-mutilak izan ziren. Hortik animazio-taldea sortu zen eta haiek proposatu zuten herriko gazteak hartzea, aisialdia era hezigarri batean egiteko”, esan digu.

Laurogeigarren hamarkada gogorra izan zen Derion. “Garai hartan ez zegoen ezer herrian: ez Kultur Birikarik, ez ludotekarik, ez gaztelekurik, ez udaletxe berririk... Eskola, anbulategia eta ura aldarrika-

tzen genituen, eta aireportuaren kontra manifestazioak ere egiten genituen. Eta hori guztia gurutzebidean, trenbide-pasagunean egiten genuen. Egunen batean omenaldia egin beharko genioke bidegurutzeari (kar, kar). Herria desastre hutsa zen, eta hori aldatzeko, hainbat aldarrikapen genituen”, aipatu du Rafak.

Zorionez, testuinguru horretan, herriko elkarteak indartsuak ziren eta derioztarrak, oso ekintzaileak, eta taldeak izugarrizko babesa jaso zuen, esate batera-

ko, guraso eta auzokideen elkarrekin. Udala ere bereganatu behar izan zuten. “1980an guztiok genuen etiketa politiko bat eta Udaletik guri ere jarri ziguten etiketa. Hala ere, Nahaste-Borrastekook gizarte balioak baino ez genituen zabalitzen, inolako jarrera politikorik gabe. Elkarte derioztarren topagunea zen, besterik ez. Aurreiritzi horiek gainditzeko, 1984an, José Ortega alkatea gonbidatu genuen Quincoces de Yuso herrian egin genuen udalekura. Ortega etorri zen eta

*“Taldeak aztarna utzi zigun: herritar solidarioago eta arduratsuago egin ginen”*

**Imaz TABAKOAK**  
EXP-002

Opariak eta osagarriak  
Puruak grabatzea  
Mobilak kargatzea  
Barik txartela kargatzea

Gorbea, 6 | 48160 Derio | 94 454 07 69

X Koltza Plaza, 2 - 4. D  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 27 19

**Estudios 10** Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behe  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 50 19





*“Ez dugu inoiz gure lanarengatik horrelako esker onik jaso eta oso pozik gaude pregoia irakurri ahal izateagatik”*

tuz, gogoratu digu Nahaste-borraste taldeak lehen udaleku euskalduna 1984an egin zuela.

#### Amaiera

2000 urtean, aldiz, taldea desagertu egin zen. “Laburbilduz, nik esango nuke aisialdi-taldeak antolatzeke modua erabat aldatu egin zela. Batetik, boluntarioen kopurua gero eta txikiagoa zen; bestetik, aisialdiaren inguruko legeak zorrotz ziren: esate baterako, baimenak eta aseguruak egin behar ziren udalekuak antolatzeko. Era berean, erakunde publikoak monitoreei soldatak ordaintzen hasi ziren, eta ondorioz, aisialdia kudeatzeko enpresak sortu ziren. Penagarria da, boluntarioak funtzionario bihurtu direlako”, dio Rafak.

Pena ez, harrotasuna ekarri die aurten Derioko jaietako pregoilariak izateak. “Espero dugu pregoi laburra eta arina izatea. Eskerrak emango ditugu pregoia irakurtzeko aukera izateagatik; jaietan parte hartzeko gonbitea egingo dugu, beti ere bortizkeriarik gabe; eta azkenik, plazan biltzen direnak dantzan jartzea espero dugu. Ez dugu inoiz gure lanarengatik horrelako esker onik jaso eta oso pozik gaude, bai horixe!”. Gainera, pregoiaren haritik, jai erraldoia antolatu zuten apirilaren 22an. “Besteak beste, umeentzako tailerrak eta bazkaria antolatu genituen. Baina batez ere berriro elkarrekin egoteko aitzakia izan zen. Primeran pasatu genuen. Etorrizunari begira, taldeko argazkien erakusketa egin nahi dugu”.

## Jai-egitaraua

Aurten, maiatzaren 12tik 15era bitartean ospatuko dira San Isidro jaiak. Pregoilariak Nahaste-Borraste taldekoak izango dira. Jai-batzordeak omenaldia egin nahi izan die 1980tik 2000ra bitartean herriko gazteentzako aisialdia antolatu zuten lagunei. Aurtengo jaiak bereziki umeei daude zuzenduta, maiatzaren 15a jai-eguna delako. Beraz, egun osoan zehar gaztetxoek zuzendutako ekintzak antolatuko dira: puzgariak, marrazki lehiaketa, txokolatada, buruhandiak... Kontzertuei dagokienez, estilo anitzeko taldeak arituko dira Derion: punk-rock, ska, cumbia-reggae-ton-punk... Cruce de miradas, Sarkor, El Gato López, La Basu, E.T.S. (En Tol Sarmiento) eta Tremenda Jauria izango dira protagonistak.

#### Maiatzak 12, barikua

–19:00: Pregoa eta traka, Herriko plazan (euria bada, frontoian).  
–19:20: Txixi-burruntzia, Herriko plazan (euria bada, frontoian). Buruhandiak.  
–20:00: Igoera tropikala, plazatik txosnagunera (euria bada, txosnagunean). Nahaste-Borraste taldearekin.  
–20:30: Txosnak zabaltzea. Kuadrillen arteko joko-txapelketa.  
–23:30: Kontzertuak, txosnagunean: Cruce de miradas, Sarkor eta El Gato López. Ostean, Kuadrillen Playback Txapelketa. Eta azkenik, DJ JB.

#### Maiatzak 13, zapatua

–11:00: Mugi zaitetz disko festa, txosnagunean.  
–16:30: Kuadrilla txapelketa: Bubble balls eta jokoak, frontoiaren atzean. (euria bada, kiroldegian).  
–18:00: Euskal dantzak, Lainomendi taldearen eskutik, Herriko plazan (euria bada, frontoian)



–19:00: *Buala* umeentzako kale antzerkia, Txaloka taldearen eskutik, Bakearen plazan (euria bada, kiroldegian).

–19:00: Pintxopoteoa, Aldats elektrotxarangarekin.

–23:30: Kontzertuak, txosnagunean: La Basu, E.T.S (En Tol Sarmiento), Tremenda Jauria eta DJ Markelin.

#### Maiatzak 14, domeka

–11:00-15:00: Eskulangintza eta Elikagai azoka, Kultur Birikaren inguruan.

–15:00: Herri bazkaria (sukalki), txosnagunean. Ostean, erromeria, Zango taldearen eskutik.

–16:30: Bizkaiko lau t'erdiko txapelketa, frontoian.

#### Maiatzak 15, astelehena

–11:30: Marrazki lehiaketa, kantxetan (euria bada, kanpoko frontoian).

–11:30-13:30 eta 16:00-19:00: Ume eta gazteentzako ekintzak, kantxetan (euria bada, barruko frontoian).

–12:30: Meza, San Isidro elizan. Ostean, biribilketa Aldekonetik.

–19:00: Txitxarrilloa, txosnagunean.

–20:30: Txokolatada, txosnagunean.

–20:45: Kuadrilla txapelketaren sariak banatzea, txosnagunean.

–21:00: Jaien amaiera, txosnagunean.





*Ondo pasa jaietan!!!*



**Derio**  
Zurekin Aurrera!



*electricidad derio elektrizitatea*  
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea  
*Proiektuak eta material elektrikoaren salmenta*

Auzkorni Kalea, 1 - Telef. / Faxi: 94 454 31 46 - 48160 DERIO (Bizkaia)



TXIMINTX  
DERIOKO EUSKARA ALKARTEA

Jaietan be **EUSKARA AHOAN!**  
Gozatu jaiak euskaraz!



**Vulcanizados DERIO**  
Herriko plaza, 5 behea • 48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 94 454 00 21



**MICHELIN**  
zerbitzu ofiziala



**Liliak**  
Loradenda

*Eskontzerarako lore arreak  
azken tendentziak eta klasikoak*

*Ondo pasa jaietan!*

Erdiko kalea, 2 / 48160-DERIO  
94 454 12 23  
www.liliak.eus  
Facebook: liliak loradenda

Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia  
aurretiko hitzordua  
solariuma

**9 4 4 5 4 3 5 8 0**

Gorbea 8, Derio 48160

OPTIKA  
**moderna**

Ikusmena graduatzea  
Zenbait motatako betaurrekoak  
Lentillak egokitzea

Aizkarri, 1  
48160 Derio

 94 454 37 99  
www.opticamoderna.es



## Naturarekin kontaktuan

Keko Alonso Larrabetzuko lorezaintza eraldatzen ari den biologoa eta promotorea da. Naturarako egiten du lan, bai Besaia enpresan bai Gym Berdea ekimeneko koordinazio-lanetan. Gym Berdea eraldakuntzako lorezaintza da, lorezaintza tradizionaletik urruntzen dena. Proiektua 2016ko otsailean jaiotzen zen Larrabetzun, eta denbora eta pazientziarekin, emaitzak loratzen hasi dira bertan.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Lorezaintza kasualitatez ezagutu zuen eta berehala maitemindu zen Keko. Larrabetzuko jubilatutako batek bertan beharra utzita zeukan lorategia, nagusiegia izateagatik mantendu ezin zuelako. Horregatik, lursaila aztertu eta diseinu berezi bat egin zion. "Lehenengo momentutik konturatu nintzen lorezaintzako gauza asko gustatzen ez zitzaizkidalara", adierazi du biologoak. "Frantziatik iparraldera joaz, lorezaintzarekiko bestelako ikuspegi dago, lorezaintzaz haratago doan mundua erakutsiz". Momentu hartan ezagutu zuen ekolorezaintzaren unibertsoa.

Agroekologiarekin gertatzen den bezala, lorezaintza tradizionaletik urruntzen den kontzeptua da ekolorezaintza. "Lorategia sistema bat da, eta bertan elkarrekin bizi diren elementu asko daude", azaldu du biologoak. Momentu honetan Alberto Albaizar larrabetzuarraren lorategia zaintzen dabil, besteak beste. Bistan da lorategia baino askoz gehiago dela. Lorategia eta etxea etxebizitza moderno- ez inguraturik daude, baina horrezaz jabetzea zaila da, lorategian pantaila funtzioa betetzen duten zuhaitz erraldoiak

### *Adin bakoitzari on egin diezaiokeen esparruan arreta deitzea bilatzen du Gym Berdeak*

daudelako. "Larrabetzuko Central Park-a da honako hau", adierazi du Kekok barre eginez, Larrabetzuko erdigunean sorturiko baso partikularrean.

Basoa da eta espazio bakarrean marubiak, ereintzak, hurrondoak... daude. "Zenbat espezie daude bertan?". Kekok barre egin du. "Kontua galdu dut, egia esateko". Zuhaitz, landare eta lore horiekin hainbat espeziezako intsektuak bizi dira: inurriak, eltxoak, erleak... denak elkarrekin bizi dira Kekok mantentzen duen basoan. "Ez dugu mehatxurik plagak direla eta: landare-zorriak ez ditugu soberan; bertako ekosistemak kudeatzen ditu eta horretarako marigorringoak daude". Landare eta lore guztien artean Erleen Hotela dago, eskuz egindako zuloz beteriko etxetxo. "Bertan erle basatiak bizi dira, polena hanketan eraman baino,

sabelean daramatzatenak. Ezta sortu ez arren, poz-pozik bizi dira polena landareetatik etxera eramanez".

Ekolorezaintzak erabat txunditu zuen Alonso lehen momentutik eta Gym Berdea sortzea erabaki zuen momentu hartan. Aitzindaria Erresuma Batuan dago, Green Gym izenekoa (Gym Berdea, ingelesez). "Green Gym-a ez da profesional mailakoa: ez da handinahikoa eta boluntarioek egiten dute lan bertan, mantentze-lanetan. Arrakasta izugarria izan zuen jaiotzen momentuan", azaldu du Kekok. Gym Berdea Green Gym-aren aldaera da: "Lorezaintzaren sustapena da, naturari on egiten diona. Horrezaz gain, osasunari ere on egiten dio ekimenak ikuspuntu integraletik alde emozional, espiritual eta mentalean, errutinak ekiditen baititu". Ideia bururatu zitzaionean proiektua martxan jartzea erabaki zuen, eta Larrabetzuko Udalaren, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako eta Osasun Sailaren laguntzaz sustatu zuen.

#### **15 eta 95 urte arteko gazteentzat**

Astebetean ordu biko saio bakarra eskaintzen du Gym Berdeak, Larrabetzun. Aurtengo ikasturtean 12 ikasle eman du-





te izena, eta pasa den urtekoaren arrakasta ikusita, aurtengoak harkor daudela adierazi du Kekok. Komunitatearekin konektatzeko, adin bakoitzari on egin diezaiokeen esparruan arreta deitzea du helburutzat Gym Berdeak: "Lan gogorrenak gazteei uzten dizkiegu, horretarako indar handia daukatelako, esaterako. Larrabetzuko eskolako gazteei, oster, herriko zuhaitz zaharretan ezarriko diren egurrezko habiak eraikitzen gonbidatu diegu".

"Emaitzak ezin hobeak dira, denek hartzen dutelako parte": errutinan murgildurik eta bakardadean dauden nagusiak, galduta dauden gaztetxoak, haurrak hezten dabilen eta aisialdirako denborarik ez duten pertsonak, lanean hasteko prest dauden gizarte-bazterketako pertsonak... askotarikoak dira Gym Berdeko parte-hartzaileen profilak. Momentuz, ekimena Larrabetzun garatzen ari da, batez ere Alonsoren jarduera profesionala bertan garatzen delako. "Ortu eta baliabide ugari daude herrian, baina batez ere auzo-lanetan aritzeko gogo handia dauka bertako jendeak: lan egiteko kultura handia dago".

Basaguralde kaleko lorategian goitik beherako aldaketa egin zuten Gym Berdekoek. Biologoak azaldu du zonaldeari hasieran emandako tratamenduak ez zuela harrera onik izan auzotar batzuen artean, lorategi arrunta baino basoaren antza duelako. "Landare irla naturala sortu dugu bertan. Nortzuk dira eltxoez libratzen gaituzten ugaztunak?", galdetu digu Kekok, lorategi aurrean egonda. "Saguzarrak". Aho bete hortz utzi gaitu. "Ba-

saguraldeko lorategiak ekosistema baten behar dituen elementu guztiak dauka: zuhaitzak, belarra, eguzkia eta erreka-txo bat. Errekan eltxoak jaiotzen dira udan, eta saguzarrak doaneko intsektujale naturalak dira; ez dago inolako sprayren beharrik", azaldu du.

Gizakia eta natura kontaktuan daude zonalde honetan, bertako Haritzen gerizpean egurrezko eserlekuak ezarri dituztelako. "Zonalde hau ikusezina zen, eta orain harmonia da nagusi, bai ekosistemako elementuen artean, bai gizakiok naturarekin dugun harremanarekin", esan du gerizpean.

Kekoren asmoa naturarekin konektatzeko espazioak ahalbidetzen duen proiektua Txorierrri osotik, baita Bizkai osotik ere, hedatzea da, lorezaintzari aplikaturiko ekologia mundu osoak ezagun dezan. Horretarako, lan gogorra egiteaz gain, pazientzia bertan parte hartzeko beste faktorea da, eta hori ikusteko begiak ireki egin behar dira: Larrabetzuko zonalde berreskuratuetan landatutako landare eta zuhaitzak loreak ematen hasi dira, apopilo eta guzti.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDALA  
EUSKALTEGIA



**MASTER CLASS**  
**Sukaldaritza modernoa**  
**eta esperimental**

Artxandako Ostalaritza eskolako  
ASIER RODRIGUEZ irakaslearen eskutik

Maiatzaren 25ean, eguena  
Baserri Antzokian  
18:30ean

**ERDU GEUGAZI**

# Hegorik gabeko txorien txioak

LOIU TXORIBIKERS ELKARTEA



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Loiuko txori batzuek beste modu batera egiten dute txio eta hegan. Herriko antzinako farmazia, Txakur-Txorin dagoena, Loiuko TxoriBikers elkarte motozalearen topagunea da gaur egun, haraneko bakarra. Bertan elkartzen dira Txoribikers motozaleak euren zaletasunaz gozatzeko. Taldea 2012an sortu zen, gaur egungo alkatea den Josu Andoni Begoña eta Gerardo Izquierdo Hazienda zinegotzi ohiaren eskutik. "Garai hartan Kultura saillean nengoen, eta Gerardorekin batera bestelako udal elkarteak sortzea proposatu genuen", adierazi du alkateak. Hiru urte eman zituen Udal elkarte bezala, eta laugarren urtetik aurrera Udaletik aldendu zen, Txoribikers izenaz eta lokal propioarekin.

Duela bederatzita urte, gaur egun herriko alkatea den Josu Andoni Begoña motorra erosi zuen eta zaletasun hau haraneko bestelako pertsonekin konpartitu nahi izan zuen. Hori dela eta, Gerardo Izquierdorekin elkarlanean hasi zen. "Elkarteak sortzean, ekitaldi publikoak egitera konprometitu ginen. Horregatik, auto klasikoekin topaketa eta putxerak bezalako ekitaldiak antolatzen hasi ginen, Udalarekin batera hasiera batean", azaldu du Gerardok. Gaur egun, udal elkarteak izan ez

Sei urteko bizitza dauka Loiuko Txoribikers motozaleen elkarteak. Udaleko kide biren artean jarri zuten martxan, gaur egungo alkatea den Josu Andoni Begoña eta Haziendako zinegotzi ohi Gerardo Izquierdok.

arren, Loiuko Udalaren dirulaguntzak jasotzen ditu ekitaldiak antolatzeko. "Bizkaiko moto elkarte bakarra gara logotipoan herriaren izena daramana, eta irteerak egiten ditugunean Loiuztarrak edo Txoriak deitzen gaituzte", aipatu du Gerardok.

30 urtetik 72 urte bitarteko gizon eta emakumeak daude bertan (gehienak gizonetzakoak). "72 urtekoa sekulakoa da, hoberen gidatzen duena, ez bairik gabe", azaldu dute elkarteak. Askotariko motorrak ikus daitezke bertan: customak, nakedak, kirol-estilokoak, trail, scooterrak... "Gehienak loiuztarrak gara, edo

Loiurekin lotura daukagu", adierazi du Gerardok. Sondikako eta inguruetakokideak ere badaude: Elotxelerrri, Leioa, Astrabudua... astebururo ibilaldiak egiten dituzte haranean eta haranetik kanpo. "Loiuko Txoribikers elkarteak 20 kide dauka, baina Loiun 200 pertsona inguru dabilta motorrean", adierazi du Izquierdok.

Elkarte bezala, herriko ekitaldi askotan parte hartzen dute antolakuntza lanetan: errepide mozketetan, segurtasuna bermatzen... eta haraneko bestelako elkarteekin parte-hartze aktiboa dute. "Sondikako jaietan motozaleen topaketa egin ohi da urtero. Bizkaiko Motozaleen Elkarteak programatik kanpo dagoenez, antolatzailerak gurekin jarri ohi dira harremanetan, eta bertara hurbiltzen gara, ahal dugun heinean laguntzeko", azaldu dute.

Apirilaren 22an Bizkaiko moto elkarte guztien arteko topaketa egin zen Loiun eta 15-20 elkartetako ehunka lagun hurbildu ziren. Egun hau urteko bereziena da

*Elkarte bezala,  
herriko ekitaldi  
askotan parte hartzen  
dute antolakuntza  
lanetan*



Txori Bikersekoentzat. "Urte osoa ematen dugu ekitaldia prestatzen, eta eguraldian mehatxuak benetan beldurtzen gaitu, horren arabera 300 pertsona etorri beharrean 150 etorri daitezkelako", adierazi du Josebak. "Ezkontza prestatzea bezalakoa da: Udal baimenak, aseguruak, Ogasunean eta Gizarte Segurutzan paper mordo eskatu eta dirutza ordaindu behar da". Horrez gain, eguraldi ona egiten badu 300 pertsonari eman behar zaie jaten, eta herriko ostalaritza enpresa guztiekin koordinazio lanetan dihardute.

### Estereotipoak, bizirik

"Denetarik dago errepidean, Loiu gutxienez ezagutzen gaituzte eta herriarekin elkarlanean gabiltzala badakite", adierazi du Joseba Arberasek. "Duela urte batzuk, motozaleak tatuajez beteriko herriko zoroak zirela uste zuen jendeak, eta oraindik badago horrela pentsatzen duenik ere", jarraitu du. "Agian horrexegatik batzuek ez dituzte motozaleak begi onez ikusten". Herri bateko tabernara larruzko jakaz eta motorrekin ezer hartzera doazen bakoitzean, jende asko euren bidetik alde egiten dutela esaten dute motozaleek. "Abokatuak, informatikoak, teknikoak, saltzaileak... denetarik dago gure taldean. Jende arrunta gara", azaldu du Gerardok. "Eta guztiok biltzen gaitue-na motorreko pasioa da".

Asteburuetako topaketak Whatsapp-en bitartez antolatzen dituzte. Horretarako talde bi dituzte: bata, elkarteko kideena soilik, eta bestea, egun jakinetan

motorrekin buelta bat eman nahi duten motozaleena. Errepidean eurekin batera bidaiatu nahi duten motozaleek jakin behar dute edozein motozale talde bezala, araudi eta kode batzuk kontuan hartu behar dituztela: taldeak bide burua du (kasu honetan Gerardo), eta gainontzeko gidariak bere atzetik joan behar dute, S formazioan (bidetik atera gabe eta lerroan, bat eskuinaldean eta hurrengoan, ezker aldean). Ezustekorik izatekotan, balaztatze distantzia normala baino handiagoa baita. "Ordena eta kontrola ezinbestekoa da errepidean, eta zirkulazio kodea beti errespetatu behar da".

Motor hotsek Alcañizera (Aragoi) daramatate loiuztarrak urtero, MotoGPko lasterketak ikustera. Aurtengo edizioa

irailaren 22tik 24ra egingo da, eta beti bezala, asmoa ostiral goizean abiatu eta igandean bueltatzea da. Zirkuitutik 30 kilometrorra dagoen hoteletan igarotzen dituzte gauak, eta lasterketez gain motorren kulturak sorturiko soinuaz (eta ez zarataz) gozatzea dute helburu. Guztira 1.200 km egiten dituzte joan-etorrietan, errepide nazionaletik, noski.

Elkarteko kidea izateko denbora eta kilometro kontua da. "Edonor sartu daiteke gure taldean, baina horrek ez du berehala taldekidea bihurtuko; elkartekoekin pare bat urteko errodajea eskatzen dugu, eta gure bilera zein ekitaldietan parte hartzen konprometitzea. Azken batean, errepidea elkarbanatzen duten adiskideak egitea da talde honen helburu nagusienetarikoa".





**POLITEKNIKA IKASTEGIA**  
**TXORIERRI**  
S.COOP.  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Lanbide Heziketa eta Enpresen Irakaskuntzarako Ikastetxea

Uhartza Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 433 40 60 | info@txorierri.net  
481162 - DEIRO | Fax: 94 433 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK**  
Apirilak 25, maiatzak 4 eta ekainak 8 (18:30tik aurrera)

**ZIENTZIAK BATXILERGOA**  
**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK**

**FABRIKAZIO MEKANIKOA**

- Mekanizazio teknikaria  
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

**SEGURTASUNA ETA INGURUMENA**

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

**ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA**

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

**MERKATARITZA ETA MARKETINA**

- Saimenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Gure tailerrak eta laborategiak ezagutzera etorri

# CRISPR, bioteknologia edonoren eskura

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

CRISPR tresna material genetikoak editatzeko teknika berria eta merkea da, adituen ustez bioteknologia eta genomika "demokratizatzer" etorri dena. Tresna horrek ez du orain artekoek behar zituzten baliabide tekniko edo ekonomiko handien beharrik, eta horregatik ahalbidetzen du ia edozein laborategik proiektuak garatzea.

Azkeneko lau urteetan zientzialariak, bakterio batzuek birusen kontra erabiltzen duten CRISPR defentsa-mekanismoetik abiatuta, geneak editatzeko gai izan dira. Sistema horren bidez, geneak moztu, gehitu, aldatu, adierazi, isilarazi... daitzek, inoiz baino zehatzago, arinago eta, garrantzitsua, merkeago.

Geneak edozein izakirenak izan daitzek, edozein gizakienak ere, eta horrek eztabaida handia sortu du, "neurrira"



## Iturriak:

–Francisco Mojicari, Ángeles Martínez eta Manuel Sánchez Angulori egindako elkarrizketa, Mikrobiologia Espainia ko Elkartearen Sem@foro aldizkarian, 61. alea, 2016ko ekaina.

[https://www.sem microbiologia.org/pdf/actualidad/61/07\\_Entrevista.pdf](https://www.sem microbiologia.org/pdf/actualidad/61/07_Entrevista.pdf)

–SINC agenzia

<http://www.agenciasinc.es/Entrevistas/Estoy-viviendo-la-revolucion-CRISPR-con-agobio-y-felicidad>

–CRISPR, genoma editatzeko teknika: onurak eta kezak

<http://zientzia.eus/artikuluak/crispr-genoma-editatzeko-teknika-onurak-eta-kezkak/>

–A simple guide to CRISPR, one of the biggest science stories of 2016

<http://www.vox.com/science-and-health/2016/12/30/13164064/crispr-cas9-gene-editing>

egindako umeak berehala etorriko direla koan. Gure ezaugarriak, gure gorputzaren eta bere funtzioen funtzionamendua, gaixotasun genetikoak eta beste batzuk edukitzeko arriskua, gaitasunak, abileziak... genetan idatzita daude maila batean edo bestean, eta gauza bera gertatzen da beste izaki bizidun guztiekin. CRISPR tresnak eskaintzen dituen itxarobideak, beraz, itzelak dira.

## Gaixotasun genetikoak


Adibide gisa gaixotasun genetikoak ipin ditzakegu. Gogoratuko duzue *House* telesailiko "13" medikua edo Poch Derrribos Arias taldeko musikari donostiarrak. Biek jasan zuten gene bakar batekin lotuta dagoen Huntington gaixotasuna. Hemofilia eta daltonismoa ere gaixotasun genetikoak dira eta, horrela izanik, zuzena ez den genea aldatuz edo modulatu ezin izango litzateke gaitza. Laborategiko zeluletan lortu da jadanik, eta arazo batzuk badaude bideratuta. Beste batzuk ordea ez dira hain errazak. Helduen kasuan, esate baterako, CRISPR tresna zelula askotan sartu behar dugu, eta hortxe daukagu erronka nagusietako bat.

Edozein izaki bizidunetan erabili ba daiteke ere –eta hor ere eztabaida handia dago–, edizio genetikoak gizakiekin lotzen dugunean sortzen dira eztabaida sutsuak. Dopin genikoa? Neurrira egindako umeak? Esperimentuen porroten ondorioak gizakiengan? Nortzuek erabakiko dute mugak non dauden? Hain erreza eta merkea izanik, zelan kontrola liteke?

Neurrira egindako umeen haritik, horrelakorik egitea zaila da oraindik, definitzen gaituzten ezaugarriak eta gure gorputzaren funtzioak gene askoren eta ingurunearen araberakoak baitira. Dena den, hobe dugu kontu horiek aurreikus-ten joatea, ez baditugu erantzunak eta erabakiak beste batzuen eskuetan utzi nahi.



# Diligentziak, trena eta euskara, Bilbon eta Bizkaian



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

1860ko erroldan, Bilbok 17.967 biztanle zeuzkan, eta Arratiak 11.427. Gaur egunetik begiratuta kopuru harrigarriak dira, ze Bizkaia osoan 111.436 bizilagun ziren. Ondorioz, Arratiako euskaldunek indar handia osatzen zuten Bizkaian, ehu-

neko hamarra<sup>(1)</sup>. Orduko Arratian, euskara, plazan, dendetan, elizan eta pilota partidetan erabiltzen zen. Espainola, ostera, eskolan, lege-paperetan edo postan. Diglosia funtzionala gertatzen zen, euskara funtzio batzuetarako erabiltzen zen, eta espainola beste batzuetarako; berberta biak bizi ahal ziren.

Aldi hartan, diligentziak zebiltzan kaminoz kamino, zeren Bizkaiko lehen trena Bilbo-Tudela 1863koa baita. Harrezkeroko trenek, industrializazioak eta gudek aldatu egin dute Bilboren eta Bizkaiko herrien arteko korrelazioa. Orain Arratiako euskaldunak ez du urte haietako garrantziarik.

Gure egunotan, –Lezama-ko tarte-ko–, Bilboko metroaren hirugarren linea zabaldu den 2017ko apirilean, Bilbo hiruburua eta ingurua handitik handiagora joan dira; herriak, ostera, proportzionalki behera. 1860 hartako diglosia funtzionala ez da bideragarri lekurik gehienetan, euskara eta gaztelera txandatu erabili beharrean aurkitzen gara Txorierrin-eta. Korrikako megamartxak Euskal Herri osoa zeharkatu du; euskaldun berriak superbetoko sentitzen dira Berbalagunari esker, eta Etxahunek, Fredik eta Arkaitzek gazte piloa erakarri dute Baseri Antzokira. Egia udaberrikoa da hori guztiori. Hala ere, Bizkaiko Teknologia Parke Txorierrikoan badira 8.000 behargin gazte erdaraz funtzionatzen dutenak.

Amaieran, gurago dut laga irakurle euskaltzalea gosez asez<sup>(2)</sup> baino.

(1) Iñaki Esparza historialariak eskuratutako datuak.  
(2) Gabriel Etxebarriak esana.

**ASADOR FUENTENEberria**  
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak  
Afariak  
Enpresa-bazkariak  
Ekitaldiak  
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:  
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBIZANZOA 26  
ZAMUDIO (BIZKAIA)  
94 452 23 79  
www.asadorfuenteneberria.com

**HARATEGIA ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**ama taberna 3**

Leizaola plaza, 7 - beheka (ZAMUDIO)  
94 655 93 69

**GAMINIZ JATETXEA**

Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

## Alberjina eta mozzarella pizza

*a: lacucharacuriosa.blogspot.com.es*

### Osagaiak (lagun birentzat):

- Pizza-oinarri bat (edo bi txiki).
- 50 g gurina.
- 100 g tipulatx (fin-fin ebagia).
- 200 g alberjina (dadotan ebagia).
- 225 g tomate (xerra mehetan ebagia).
- Koilaratxokada bat gatz.
- Piperbaltza.
- 175 g mozzarella (arraspaua).
- Oreganoa.

### Prestateko errea:

Zartagin baten gurina urtuko dogu eta tipulatxa arin fritituko dogu. Alberjina eta tomatea gehituko doguz. Zartaginari estalgia ipiniko deusagu eta lau minutuan eukiko dogu sueztitzen, su txikian. Gatza eta piperbaltza botako doguz.

Pizza-oinarria labarako plakan ipiniko dogu eta ganetik alberjina, tomate eta tipulatxaren nahastea zabalduko dogu. Mozzarella be zabalduko dogu pizza-oinarritik. Oreganoa botako dogu.

Pizza labara sartuko dogu eta gorrituta dagoanean handik aterako dogu. Jan aurretik, jalkitzen itxiko dogu minutu erdian.



## Etxeko sukaldaritza



## Kalabaza-tartea

*t: M. Lekerika / a: canalcocina.es*

### Osagaiak:

- 1,2 kg kalabaza (txikitua).
- 350 g "brisa" ora.
- 8 arrautza.
- 500 ml esnegain.
- Gatza eta piperbaltz ehoa.

### Prestateko errea:

Kalabazea bezperan egosiko dogu lurrunetan eta hozkailuan itxiko dogu hotzitzen eta xukatzen.

Tarta egiteko, molde bat hartu eta labarako paperaz edo aluminio-paperaz estalduko dogu. Orea zabalduko dogu. Arrautzak, esnegaina, gatza eta piperbaltza nahasi eta ondo irabiauko dogu. Kalabazea gehitu eta ha be nahastuko dogu beste osagaiakaz, ondo irabiauz. Nahasia zabalduko dogu oraren gainean eta labara sartuko dogu 200 gradutan. Laban 40 minutuan eukiko dogu. Bestetik, gatz eta piperbaltzaren ordez, 100 g azukre be erabili daiteke. Oso gozoa da.

**TABERNA GAZTEDI**  
Eguneko menuak  
Ospakizunak  
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**GOXO-GOXO LOHTIZON**  
Arretzeldetz zobelik  
Ogile egituren  
Pastelak enkeratuz  
Garaioitza, 77c  
48196 Lezama  
94 455 42 72  
goxogoxohtizun@hotmail.com



## Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

*Pentsu  
naturalak*

**Enaitz**  
TABERNA  
Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak  
94 455 42 15  
Garaioitza, 74  
48196 Lezama

**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46





## Umeekin zer irakurri?

### Telefonozko ipuinak

Ana Apika

**Egilea:** Gianni Rodari.

**Argitaletxea:** Elkar.

Liburutegietan dago irakurgai.

Gianni Rodari pedagogo, irakaslea eta idazlea zen. 1920. urtean jaio zen Italian eta bere biografia luzea eta korapiratsua da. Mundu osoan oso arrakastatsua izan zen, batez ere liburu batengatik, *Grammatica della fantasia (Introduzione all'arte di inventare storie)*. Obra horretan Rodarik istorioak sortzeko teknika berezia –“Binomio fantastikoa”– eskaini zigun.

Italiarra egile berezia da, batez ere fantasiaz eta originaltasunaz betetako lanak egiten zituelako, bai ipuinak, bai abestiak, bai poemak. Horiei esker, ekarpen handi-handia egin zion literatura berritzeari. Egileak 30 obra baino gehiago

eraman zituen argitara. Euskaraz irakur daitezkeen batzuk: *Jolas egiteko ipuinak, Gezi urdina, Hizketan bazekien katua, Aitaxo bilin-bolon, Erregeak zergatik ez ote dira errege?, Makinaz idatzitako ipuinak, Margolaria...*

Telefonozko ipuinak (Elkar) obran hainbat istorio irakurtzeko aukera dago, guztiak erakargarriak, umeentzat zein nagusientzat. Rodarik ondo baino hobeto zekien zelan apurta konbentzioak, zelan landu absurdoa eta zelan jolastu irudimenaekin. Istorioen bidez, egileak gizarte-ari, haurtzaroari eta hezkuntzari buruz zituen ideiak, kexak eta baloreak lantzen zituen.

#### Aholkua

Jolas gaitzen seme-alabekin. “Binomio fantastikoa” teknika erabilita, obra honetan agertzen diren bezalako istorio-



ak asmatzeko gonbitea egiten dizuet. Horretarako, loturarik ez duten hitz bi hartu behar ditugu. Substantiboak badira, hobeto. Adibidez, “zuloa” eta “arkatza”. Gero, gure ipuinari izenburua jartzeko, izen biak lotuko ditugu: “Zuloa zuen arkatza”. Eta hortik aurrera istorioa osatu behar da. Irudimena erabiliko dugu eta istorio dibertigarriak agertuko dira. Konturatu gabe gure pentsatzeko modua ere islatuko da istorioetan. Denok idazleak edo, hobeto esanda, asmatzaileak izan gaitzen!

## Erakusketak

### Sondika

- > "El compañerismo en el comic", Adiski-detasuna Komikigintzarena. Maiatzaren 3tik 24ra, erakusketa aretoan.
- > Zur lanketa. Maiatzaren 29tik ekainaren 16ra, erakusketa aretoan.
- > Esku lanak. Maiatzaren 29tik ekainaren 16ra, Kultura Aretoa 1ean.

### Derio

- > Udal tailerrak. Maiatzaren 2tik 31ra, Kultur Birikan.

## Hitzaldiak

### Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Kattalin Minerren *Nola heldu naiz ni honaino?*. Maiatzaren 18an, 19:00etan, Angulerin.

## Ikastaroak

### Sondika

- > Oinarrizko internet. Izena ematea: maiatzaren 15etik 19ra. Zozketa: maiatzaren 24an, 18:00etan.

### Derio

- > Flamenko eskularen tailerrak eta sevillar dantzen *master class*-a. Maiatzaren 7an, 11:00etan, frontoian. Piperdun taldeak antolatua.

### Larrabetzu

- > E-liburutegia. Maiatzaren 23an. Izena ematea: maiatzaren 8tik 12ra, Angulerin.

## Ikuskizunak

### Larrabetzu

- > *Askatu barrukoa*. Txotxongiloak, Aitzolen eskutik. Maiatzaren 12an, 18:00etan, Angulerin.

## Irteerak

### Txorierrri

- > Herri Urrats. Maiatzaren 14an, Senperen.
- > Ibilaldia. Maiatzaren 28an, Mungian.

### Sondika

- > Tipi-tapa txikia. Maiatzaren 7an, 10:15ean, tren geltokian. Izena ematea: [www.ehu.es/kirolak-bizkaia](http://www.ehu.es/kirolak-bizkaia) webgunean.
- > Oiz-Munitibar. Maiatzaren 21ean, 09:00etan, eskolako aparkalekuan. Izena ematea: maiatzaren 17ra arte, liburutegian. Udalak eta Gurasoen elkarteak antolatua.

### Lezama

- > Karrantza (familiantzat). Maiatzaren 14an, 08:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Hoya de la Leze (Araba). Maiatzaren 20an, 08:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.

### Larrabetzu

- > Garmitxaren V. Martxa – Larrabetzutik oinez. Maiatzaren 14an. Izena ematea: 10:00etatik 11:00etara, plazan.
- > Barkoxeko jaiak. Maiatzaren 27an. Bizkargi dantza taldeak antolatua.
- > Liebana. Maiatzaren 27an. Gure Etxeak antolatua.

## Jaiak

### Txorierrri

- > San Isidro, Txorierrriko lur-langileen kooperatibetan eta Larrabetzun.

## Musika

### Lezama

- > Udaberriko kontzertuak. Maiatzaren 6an, 20:00etan, Andra Mari elizan. Maximo Morenoren abesbatza (Galdakao), Isasiko ama (Gordexola) eta Ekidazu abesbatza (Lezama).

### Larrabetzu

- > XXVI. Maiatza musikala. Maiatzaren 11n eta 26an, 19:30ean, Angulerin.
- > Domekak Hori Baien: Montauk. Maiatzaren 21ean, 18:30ean.

## Bestelakoak

### Sondika

- > Uda programan izena ematea. Maiatzaren 8tik 12ra, 19:00etatik 21:00etara, Ludoteka II.

### Lezama

- > Txorierrriko kiroldegiak erabiltzeko dirulaguntza eskatzea. Maiatzaren 2tik 31ra, udal bulegoetan.
- > Uda programan izena ematea (4-13 urte). Maiatzaren 8tik 19ra arte, 10:00etatik 14:00etara, liburutegian.

### Larrabetzu

- > Saroarekin irakurketa musikatuak. Maiatzaren 5ean, 16:30ean, Angulerin.
- > Koadrila Eguna. Maiatzaren 20an.

**R.P.A.**  
MAYORISTAS INFORMÁTICOS  
ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA  
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

**RUBÉN**  
ERLOJU-DENDA · BITXITEGIA  
Lahendakari Letamala plaza, 5  
48170 Zamudio  
94 452 14 49

**Garmendia ardoak**  
Pinoa pol., P-3B  
ZAMUDIO  
Tel./Faxa: 94 452 00 49

**OPTIKA IKUSLAN**  
Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**Mujeri TAILERRAK**  
Inbisa industrialdea  
Astintze kalea 6-16-17 C2 Pabiloia  
48160 Derio / Bizkaia  
688 847 633 / 946 572 315  
[iker@mujertailerrak.com](mailto:iker@mujertailerrak.com)

**GORBEIA MERTZERIA**  
arropa / zapatak  
konpontzen ditugu  
Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06



# MAIATZA

Taileri, 6 (Seminarioaren atzean) DERIO 94 406 36 02

**ban**  
BASERRIANTZOKIA

Maiatzak 6, 20:00etan

**ASTRALIA**

**BÖIRA**

**WET CACTUS**

Sarrera: 8 euro (aureratua)

10 euro (txarteldegian)

Maiatzak 26, 20:00etan

**TEETHING**


**IRON FIST**

**KNIVES**

**A.D**

**VOLTAJE CADAVER**

Sarrerak, aldeztu aurretik: entradium



**bbk** =



# Derioko Merkataritza

kalitate handikoa  
eta hurbila



- Derion **oparirik onenak** ditugu Amaren Egunerako eta Jaun-hartzeetarako.
- Bete-betean asmatzeko, **lagundu** egiten dizugu.
- **Opari-txartelak** ditugu.

## Udaberria heldu da eforri Deriora!

Maiatzean, erosketak,  
sorpresez beteta!



TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONSUMO SALA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO



Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako  
Elkarte Profesionala

**anirik paraje!**

Asociación Profesional de  
Comercios y Servicios de Derio